

2025EKO OTSAILAREN 27AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeita zazpia

HILABETEA: Otsaila.

URTEA: Bi mila eta hogeita bost.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seietan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: LEIRE ARTOLA UGALDE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AINHOA ARRESE ARRATIBEL
- MARIOLA PASCUAL PAREDES
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- MICHEL VENTUREIRA IRIZAR
- OLATZ ARRESE IMAZ
- AITOR ALDASORO ITURBE

BEASAINGO EH BILDU

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- IKER URTEAGA REBOLLAR
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE

- WESLEY ARITZ CORSITTO AGIRRE

ETORRI GABEAK: HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran ere parte hartu dute Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak eta Leire Lekuona interpretariak.

Gai-zerrendari hasiera eman baino lehen, Alkate andreak esan du aurreko bilerako akta hurrengo bileran aurkeztuko dela, itzultzeko denborarik izan ez delako, langilearen gaixotasun baja izan dela eta.

1.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- ONDASUNEN UDAL INBENTARIOA: 2024KO ABENDUAREN 31 DATAREKIKO EGUNERAKETA. 2025EKBO0018

2025-02-20ko Antolakuntza batzordearen proposamenaren berri eman da:

“2024ko abenduaren 31ko datarekin egindako Inbentarioaren eguneraketa onartzea proposatzen dio Antolakuntza Batzordeak Udalbatzari:

UDALA	Kostu historiko	Amortizazio	Neto kontablea
ONDASUN HIGIEZINAK	84.266.033,05 €	33.063.591,49 €	51.202.441,56 €
ERAIKUNTZAK	32.227.702,62 €	8.805.487,83 €	23.422.214,79 €
TERRENOAK	11.648.952,44 €		11.648.952,44 €
JOLASTOKIAK	4.936.579,76 €	2.151.570,46 €	2.785.009,30 €
BIALAK	30.672.743,42 €	19.710.496,58 €	10.962.246,84 €
LANDA FINKAK	35.067,07 €		35.067,07 €
AZPIEGITURA	4.744.987,74 €	2.396.036,62 €	2.348.951,12 €
ERRENTA ESKUBIDEAK	1.251.408,23 €		1.251.408,23 €
BALORE MOBILIARIOAK	695.402,81 €		695.402,81 €
IBILGAILUAK	382.001,41 €	177.884,47 €	204.116,94 €
MOBLERIA	4.109.859,98 €	3.133.569,01 €	976.290,97 €
ONDASUN ETA ESKUBIDE BIHUR..	1.093.027,00 €		1.093.027,00 €
GUZTIRA	91.797.732,48 €	36.375.044,97 €	55.422.687,51 €

ERAIKINAK ERABIL LAGAPENEAN	5.627.305,57 €		5.627.305,57 €
	97.425.038,05 €	36.375.044,97 €	61.049.993,08 €

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

b.- KREDITU ALDAKETA. 1. KREDITU TRANSFERENTZIEN ESPEDIENTEA. 2025TRFR0001

Ezagutzera eman da Alkatearen proposamena, 2025-02-20ko Antolakuntza batzordean kontu emandakoa:

Proposamenaren berri eman baino lehen Alkate andreak (EAJ-PNV) ondorengoa azaldu du: “2025ko aurrekontuan Musika Eskola birgaitze-obrak egiteko 253.000 € aurreikusi ziren baina proiektua egin ostean jakin izan da aurrekontua 375.000 €koa dela. 2024ko likidazioa oraindik onartu ez denez ezinezkoa da kreditu aldaketarik egitea. Beraz, kontusail batzuk murriztuz kreditu transferentzia egitea proposatzen da, obrak horiek hurrengo ikasturtea hasi baino lehen gauzatu ahal izateko. Horrek ez du esan nahi murriztu diren kontusailak egikarituko ez direnik. Horretarako, bere momentuan, kreditu aldaketa egingo da.”

Jarraian proposamenaren berri eman da:

“Alkatea naizen honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten diot:

1.- Kreditu transferentzien bidez 124.500,00 euroko zenbatekoaz eranskinean zehazten den moduan finantzatzen den kreditu aldaketa onartzea, eta kapituluka honela laburtzen dena:

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuak (bajak)

<i>Kapitulua</i>	<i>Izena</i>	<i>Gutxipena</i>
2	<i>Gastu arrunt eta zerbitzuen erosketak</i>	18.500,00
6	<i>Inbertsio errealak</i>	106.000,00
<i>GUZTIRA ...</i>		124.500,00

Gehitutako kredituak biltzen dituzten gastuak (altak)

<i>Kapitulua</i>	<i>Izena</i>	<i>Gehikuntza</i>
6	<i>Inbertsio errealak</i>	124.500,00
<i>GUZTIRA ...</i>		124.500,00

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengoa adierazi dute:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nosotros no estamos a favor porque también en la Junta de Gobierno Local hemos votado en contra del proyecto. A

nuestro entender la Musika Eskola debe tener un espacio propio y el edificio consistorial debería serlo para cometidos institucionales y administrativos. Somos conscientes de que las aulas no cumplen la normativa, pero nuestro partido siempre ha defendido que la Musika Eskola debería tener un espacio propio”.

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Gure ustetan ere musika Eskolak bere egitura propioa izan behar du. Kasu honetan ordea, defendatu egiten dugu egin nahi dena baina kreditu-transferentzia egitearekin ez gaude ados. Prozedura horrek, nahiz eta legezkoa izan, zalantzak sortzen dizkigu eta murrizten diren partidak (mugikortasuna, landalurra etab.), transferentzia egiteko arreta ematen digu”.

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): “Abstenuitu egingo gara, egungo espazioak ez dituelako legeak eskatzen dituenak betetzen, baina aurka ez dugu bozkatuko proiektua zuzendaritzarekin partekatu delako.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Musika Eskola zaharberritzea ez da oraingo kontua. Urteak daramagu zuzendaritzarekin lanean kontu honekin eta zuzendaritzaren eskutik joan nahian, garbi geratu da Musika Eskola erdigunean behar duela. Orain egitea onartu diren obrekin asmoa da 2024ko Legea egokitzea. Gure hautua plazan kokatzen jarraitzea izan da. Kreditu transferentziari buruz esan, legeak aurreikusten duen mekanismoa dela eta ondo iruditu zaigu nahi den helburua lortzeko erabiltzea. Hain zuen ere, aurrekontu hitzak, hasieratik zerbait egiten dena esan nahi du eta tamalez, beti ez da asmatzen. 2024. urteko likidazioa egiten denean, kreditu-alaketak egingo dira murriztu diren kontusailak aurrera eramateko.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da.

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE).

Etorri gabeak: 1 (Beasaingo EH Bildu).

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

2.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- ADINEKOENTZAKO UDAL OSTATU ZERBITZUAREN ARAUDIA: ALDAKETAREN BEHIN BETIKO ONESPENA. 2024BIBO0023

2025-02-20ko Herritarrak batzordearen proposamenaren berri eman da:

“Gaia: Adinekoentzako ostatu-zerbitzua arautzen duen erregelamendua: ofizioz aldatzea eta erregelamendu hori behin betiko onartzea.

AURREKARIAK

1.- 2024-10-25. Udalaren web orrian argitaratzen da herritarrek iradokizunak aurkezteko araudia egin aurreko kontsulta, 2024-11-15era arte.

Aldi horretan ez zen ez ekarpenik ez iradokizunik egin.

2.- 2024-12-5. Udalbatzak hasierako onarpena eman dio erregelamendu horri.

Hasierako onespeneraren iragarkia GAOen argitaratu zen (2024-12-20) eta Erregelamendua jendaurrean jarri zen 30 eguneko epean alegazioak aurkezteko.

Alegazioak aurkezteko epea 2025-02-6an amaitu zen, eta ez zen alegaziorik aurkeztu.

Hala ere, komenigarritzat jotzen da erregelamendu hori ofizioz aldatzea, Gizarte Ongizateko azpisaileko arduradunaren 2025-02-13ko txostenean adierazitako arrazoiengatik.

Ondorioz, Herritarrak Batzordeak Udalbatza osoari hurrengo ERABAKI-PROPOSAMENA egiten dio:

Lehenik. Erregelamenduaren edukia ofizioz aldatzea, honela:

- 23. artikuluko (zerbitzuaren tasa) laugarren paragrafoa kentzea, bertan araututakoa aplikatzeko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea garatzen duen erregelamendua falta delako.

- IV, A.2) eranskinaren lehen paragrafoaren idazketa aldatzea, argitzeko, zehazteko eta hura aplikatzeko interpretazio-zailtasunak saihesteko; honela idatzita geratuko da:

Ondareztat hartzen da eskaera egin aurreko lau urteetako eskatzaile/onuradunen kapital higigarri eta higiezin guztia, nahiz eta eskualdatua izan den (kostu bidez eta/edo doan).

Kasu horretan, eskualdaketa-tituluan agertzen den zenbatekoa hartuko da kontuan, eta lau urte horiek zenbatzeko, sarrera-eskaeraren data hartuko da erreferentziazat. Urte bakoitzeko ondarearen balio osoa zati lau egitearen emaitza kontabilizatuko da.

Bigarren. "Adinekoentzako ostatu-zerbitzua arautzen duen erregelamendua" behin betiko onartzea.

Hirugarren. Testu osoa GAOen argitaratzea indarrean sartu ahal izateko."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

d.- Dirulaguntzak emateko oinarriak:

- MERKATARITZA SEKTOREA BIZIBERRITZEKO LAGUNTZAK.2025OIME0001

2025-02-20ko Herritarrak batzordearen proposamenaren berri eman da:

"Gaia: Merkataritza sektorea biziberritzeko dirulaguntzak emateko oinarriak. Udalak merkataritza sektorea biziberritzeko oinarriak idatzi ditu.

Oinarri hauen xedea, merkataritza jardueraren bat lokal huts batean abian jarri edo martxan dagoen negozioa eskualdatu nahi duen pertsonak bete behar dituen baldintzak eta betekizunak zehaztea da.

AURREKARIAK:

1. Beasaingo Udalak Merkataritza Biziberritzeko Plana du.

2. Plan horretan merkataritza sustatzeko hainbat jarduera proposatzen dira, besteak beste, lokal hutsak betetzen laguntzeko dirulaguntzak ematea.

3. Merkataritza azpisaileko arduradun teknikoak 2025-02-04an egindako txostena.

4. 2024an 31 merkatariri eman zaie dirulaguntza.

Xede hau betetzearren Udalak bi dirulaguntza lerro idatzi ditu:

1.- Oraindik martxan dagoen edo hutsik dagoen lokala alokatzeko dirulaguntzak.

- Lehenengo urtean alokairu gastuaren %50, gehienez ere 300€ hilean.
- Bigarren eta hirugarren urtean alokairu gastuaren %40, gehienez ere 200€ hilean.

2.- Oraindik martxan dagoen edo hutsik dagoen lokala erosteko dirulaguntzak.

- Katastroko balioaren %4 izango da, gehienez ere 2.000€

LEGERI APLIKAGARRIA:

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. 17.artikulua, 34.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- Dirulaguntzak arautzen dituen Udal araua.
- Beasaingo Udalaren 2023-2025 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

Oinarri hauetan araututako dirulaguntza deialdia egitea honela baldintzatuta egongo da: emango diren dirulaguntzen hiru ekitaldi ekonomikotan ordaintzeko behar diren kredituei behin betiko onartuta egon beharko dira.

Udalerriko merkataritza sustatze aldera Herritarrak Batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo PROPOSAMENA egiten dio:

Lehenik: Merkataritza sektorea biziberritzeko dirulaguntzak emateko oinarrien proposamena onar dezala.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda aho batez, merkataritza sektorea biziberritzeko dirulaguntzak emateko oinarriak onartu dira. (akta honen [1. Eranskina](#))

- MERKATARITZA ARLOAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEENTZAKO LAGUNTZAK.
2025OIME0002

2025-02-20ko Herritarrak batzordearen proposamenaren berri eman da:

“Gaia: Beasaingo udalerrian merkataritza arloan lan egiten duten elkarteei dirulaguntza emateko oinarri arautzaileak.

AURREKARIAK

1.- Udalak merkataritza sustatzeko helburuarekin 2021.urtera arte Bareak Merkataritza elkartearekin hitzarmena zuen bertako merkataritza sustatu eta indartzeko eta oinarri hauen xedea ere berdina izango litzateke, bertako merkataritza indartu eta bide batez, bertako ekonomia sustatzea.

2. - Merkataritza azpisaileko arduran teknikoak 2025-02-04an egindako txostena.

3. - Udalak 14.000 euroko dirulaguntza eman zion Bareak Merkataritza elkarteari kontzeptu honetarako.

Xede hau betetzearren Udalak Beasaingo udalerrian merkataritza arloan lan egiten duten elkarteei dirulaguntza emateko oinarri hauek idatzi ditu:

-14.000€-ko dirulaguntza emango du bertako merkataritza sustatzeko eta horretarako egingo diren jardueren aurre egiteko. Jarduera horiek helburu hauek beteko dituztenak izango dira:

- Ostalaritza sustatzea.
- Merkataritza elkartera bazkide berriak erakartzeko eta lehengo bazkideak mantentzeko ekintzak.
- Herria erosteko sentiberatze lanetarako ekintzak.
- Herria dinamizatzeko ekintzak.
- Merkataritzarekin zerikusia duten formazio-saioak.
- Eraldaketa digitala sustatzeko ekintzak.
- Bezero berriak erakartzeko eta lehengoak fidelizatzeko ekintzak.
- Elkartearen komunikazioa, publizitatea eta irudia lantzeko ekintzak. Horrela elkartea indartuz.
-

LEGERI APLIKAGARRIA:

2/2016 Legea, apirilaren 7koa Euskadiko Toki Erakundeei Buruzkoa. 17.artikulua, 34.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra.

Dirulaguntzak arautzen dituen udal-araua.

2023-2025erako Beasaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

PROPOSAMENA:

Udalerriko merkataritza sustatze aldera Herritarrak Batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo PROPOSAMENA egiten dio:

Lehenik: Beasaingo udalerrian merkataritza arloan lan egiten duten elkarteentzat dirulaguntzak emateko oinarrien proposamena onar dezala.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda aho batez, Beasaingo udalerrian merkataritza arloan lan egiten duten elkarteek dirulaguntza emateko oinarri arautzaileak onartu dira. (akta honen [2. Eranskina](#))

- SALTOKI ETA JARDUERETAN ERROTULU NAGUSIA, IRUDI KORPORATIBOA ETA WEB ORRIA EUSKARAZ JARTZEKO LAGUNTZAK. 2025OIME0003

2025-02-20ko Herritarrak batzordearen proposamenaren berri eman da:

“Gaia: Errotuluak, irudi korporatiboa eta web-guneak euskaraz jartzeko dirulaguntzen inguruko oinarriak eta deialdia.

AURREKARIAK:

1. 2008ko ekainaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren lehen aldiz Merkataritzako errotuluak, irudi korporatiboa eta web-gunea euskaraz osorik edo ele bietan/anitzetan jartzeagatik dirulaguntzak emateko oinarriak. Dirulaguntza horien helburua establezimenduen hizkuntza paisaia euskalduntzea izan zen.

2. 2024.urtean dirulaguntza horietan aldaketa batzuk egin ziren, web orriari zegokion dirulaguntza hasita.

3. Merkataritza azpisaileko arduradun teknikoak 2025-02-an egindako txostena.

4. 2024an 16 merkatariri eman zaie dirulaguntza eta 19 dirulaguntza eman dira.

LEGERI APLIKAGARRIA

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, subentzioak emateari buruzkoa. PROPOSAMENA:

Merkataritzan hizkuntza paisaia euskalduntze aldera, eta gaztelaniaz dauden errotulu nagusia eta irudi korporatiboko elementuen kopurua jaiste aldera, Herritarrak batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo proposamena egiten dio:

Lehenik: Errotuluen kasuan, dirulaguntza kostuaren %50 izatea, gehienez ere 240 euro izatea.

Bigarrena: Irudi korporatiboen kasuan, testua euskara hutsez jarritz gero, kostuaren %50 ordainduko du Udalak eta dirulaguntza gehienez ere 180 eurokoa izatea.

Hirugarrena: a) Web-orria euskara hutsez eginez gero, kostuaren %60 izatea dirulaguntza, eta gehienez ere 470 euro.

b) Web-orria euskaraz eta beste hizkuntza batean/batzuetan egonez gero, kostuaren %50 izatea dirulaguntza, eta gehienez ere 380 euro."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritziz hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Estamos de acuerdo teniendo en cuenta, además, que una de las propuestas que hizo nuestro grupo en relación a las webs de un 40% a un 50% para que lo sean en euskara y algún otro idioma, se ha recogido. Queremos que la presencia del euskera aumente pero no hay que olvidar que para que nuestros productos lleguen a más gente, hay que hacer uso también de otros idiomas. Entendemos que es una medida positiva porque los comercios pueden obtener beneficio."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Bai, kontu guzti hauek web orrien eguneraketa eskatzen dute. Azken urteetan dirulaguntza hauek garrantzia hartu dute. Web orriak gure merkatarien eskaparateak direnez, erosleen esparrua zabaldu egin daiteke. Ele anitzetan jartzeagatik %10ren igoera onartu zen eta somatzen da horrelako aldaketa batek emaitza positiboak eman dituela."

Bozketa eginda aho batez, errotuluak, irudi korporatiboa eta web-guneak euskaraz jartzeko dirulaguntzen inguruko oinarriak onartu dira. (akta honen [3. Eranskina](#))

- BERTAKO PRODUKTUAK MERKATURATZEKO ETA KONTSUMOA SUSTATZEKO LAGUNTZAK. 2025OIME0004

2025-02-20ko Herritarrak batzordearen proposamenaren berri eman da:

"GAIA: Bertako produktuen merkaturatzea eta kontsumoa sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak.

AURREKARIAK:

1. Udal Gobernuak tokiko produktuen merkaturatzea martxan jarri zuen 2017ko otsailean, hileko lehen larunbatean, merkaturaren jarraipena ziurtatzeko eta denboraldiko produktuak erosteko aukera emateko, astearteetako merkatura joateko zailtasunak dituzten herritarrei. Horrela, ekoizleei eta kontsumitzaileei bertako produktuak zirkuitu laburren bidez merkaturatzea eta kontsumitzea bermatu nahi zaie.

2. Merkataritza azpisaileko arduradun teknikoak 2025-02-8an egindako txostena.

3. 2024an 5 ekoizleri eman zaie dirulaguntza.

4. Idazkaritzaren txostenak adierazten du aurreikusitako moduan sustatu nahi den jarduera ez dela dirulaguntza kontzeptuaren arabera, baizik eta kontratazioari lotutako zerbitzu-prestazio batena. Kontu-hartzailetzaren aldetik, fiskalizazio-txostena ere ematen da erreparorekin.

5. Hala ere, erantsi diren eta onartzeko proposatu diren oinarriak prestatu dira, eta horretarako 0243.471.431.20.01 kontu-saila jarri da "azoka dinamizatzeko dirulaguntza", honako arrazoi hauengatik:

-Kontratazioa bideraezina da ekoizle-eskasiagatik eta fakturatzeko zailtasunagatik.

OINARRI JURIDIKOAK:

-2/2016 Legea, apirilaren 7koa Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. 17.artikulua, 34.

-38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

-Dirulaguntzak arautzen dituen Udal araua.

-Beasaingo Udalaren 2023-2025 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

PROPOSAMENA:

Ondorioz, Herritarren Batzordeak Udalbatza Osoari honako akordio proposamena egiten dio:

Lehena: Oinarriak onartzearen aldeko erreparoa ebaztea eta aurreikusitako laguntzak emateko deialdia egitea, tokiko produktuekin merkatua izateari lehentasuna ematean, herritarrentzat interes orokorrekoak direlako. Horrela, eskualdean tradizio kulturalako ohiturak zaindu, desagertzea saihestu eta bertako ekoizpena bultzatu nahi da."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda aho batez, bertako produktuen merkaturatzea eta kontsumoa sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak onartu dira. (akta honen [4. Eranskina](#)).

- BEASAINGO UDALERRIAN EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUNA SUSTATZEN DUTEN ELKARTEENTZAKO LAGUNTZAK.
2025BOBE0002

2025-02-20ko Herritarrak batzordearen proposamenaren berri eman da:

"AURREKARIAK

I.-Beasaingo Udala beti aritu da elkarlanean emakume eta gizonen arteko berdintasun arloan lanean diharduten herriko elkarteekin eta horretarako urtez-urte bere aurrekontuetan erakundeei diruz laguntzeko partida kontsignatu du.

II.-Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikulua kontuan hartuta, diru-laguntzak emateko ohiko prozedura norgehiagoka-erregimenean izapidetu behar da.

III.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2022ko ekainaren 1ean, hain zuzen, lehen aldiz argitaratu ziren Beasaingo udalerrian emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren arloan diharduten elkarteentzako dirulaguntzak emateko oinarriak 2023. urtean guztira bi proiektu aurkeztu eta diruz lagundu ziren. 2024. urteko deialdian 3 proiektu aurkeztu ziren eta guztira, 13.355,20 euro jaso zituzten.

LEGERI APLIKAGARRIA

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.

Diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (2018/06/14 GAO).

Beasaingo udaleko dirulaguntzen Plan estrategikoa 2023-2025 (1. helburu estrategikoa: gizarte-

ekintza sustatzea. 1.4. Diru-laguntza ildoak: gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea).

PROPOSAMENA:

Herritarrak batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: Beasaingo udalerrian emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzen duten elkarteentzako dirulaguntza emateko oinarriak onartzea.

Bigarrenik: Deialdi egitea oinarriak argitaratuz."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda aho batez, Beasaingo udalerrian emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzen duten elkarteentzako dirulaguntza emateko oinarriak onartu dira. (akta honen [5. Eranskina](#)).

- KULTURA, KIROLA EDO GENERO BERDINTASUNERA EDO KONTZILIAZIO ERANTZUKIDERA ZUZENDUTA DAUDEN EKINTZA EDO JARDUERETARAKO LAGUNTZAK. 2025BOBE0003

2025-02-20ko Herritarrak batzordearen proposamenaren berri eman da:

"AURREKARIAK

I.- Beasaingo Udalak hainbat urtez kultura, kirol eta genero berdintasuneko jarduerak bultzatzen ditu herriko hainbat eragilerek in egindako hitzarmenen bidez. Hala ere, kulturarekin, kirolarekin edo genero-berdintasunarekin lotutako ekimen berriak sortu ohi dira urtean zehar. Diru-laguntza hauen helburua da beasaingarren parte- hartzea sustatzea, ekimen berri horietarako diruz laguntzaren bidez.

II.- 2025. 0260.481.337.20.01. kontusail espezifikoan 10.000 euroko kreditua kontsignatu da "kultura, kirola, berdintasuna. ekintzak. dirulaguntzak" emateko.

LEGERI APLIKAGARRIA

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.

Diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (2018/06/14 GAO).

Beasaingo udaleko dirulaguntzen Plan estrategikoa 2023-2025 (1. helburu estrategikoa: gizarte-ekintza sustatzea. 1.9. Diru-laguntza ildoak: Kultura, kirola eta genero berdintasunera zuzenduta dauden ekintza eta jardueretarako).

PROPOSAMENA:

Herritarrak batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Kultura, kirola eta genero berdintasunera zuzenduta dauden ekintza eta jardueretarako dirulaguntza emateko oinarriak onartzea.

Bigarrenik. Deialdia egitea, oinarriak argitaratuz."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda aho batez, Kultura, kirola eta genero berdintasunera zuzenduta dauden ekintza eta jardueretarako dirulaguntza emateko oinarriak onartu dira. (akta honen [6. Eranskina](#)).

3.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- HITZARMENA: BEASAINGO UDALA ETA EUSKO JAURLARITZAKO TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO DEPARTAMENTUAREN ARTEKO HITZARMENAREN ALDAKETA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOTIK PASATZEN DEN DONEJAKUE BIDEARI ATXIKITAKO «IGARTZAKO MONUMENTU MULTZOA» KULTURA-INTERESEKO ONDASUNA MANTENTZEKO ETA ERABILERA TURISTIKORAKO BIRGAITZEKO PROIEKTU JASANGARRIA –EUOPAR BATASUNAK NEXT GENERATION EU FUNTSEN BIDEZ FINANTZATUTAKO SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUKOA– GAUZATZEKO. 2023HIBO0134

Ezagutzera eman da 2025-02-20ko Lurralde Batzordearen proposamena:

“AURREKARIAK

I.- 2023-05-18. Udalbatza Osoak erabaki zuen idazpuruan aipatzen den hitzarmena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin sinatzea.

II.- Hitzarmena, Javier Hurtado Domínguez jauna, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak eta Leire Artola Ugalde Alkate andreak sinatu zen.

Hitzarmenaren helburu, dirulaguntzaren zenbatekoa eta iraupena:

Xedea: Igartzako monumentu-multzoa Kultura-intereseko ondasuna eta/edo haren ingurunea hobetzeko eta birgaitzeko jarduerak (hitzarmenaren 3. klausulan adierazten dut zeintzuk izan daitezken), finantzatzea.

Dirulaguntza (hitzarmenaren 6. klausula): Udalak jasotako zenbatekoa, ordainketa aurreratu modura, 700.000,00 €koa izan da.

Epeak:

- *Lagundu daitezkeen jarduketak gauzatzeko epea (hitzarmenaren 5. klausula): 2025-07-31.*
- *Jarduketak justifikatzeko epea (hitzarmenaren 11. klausula): 2025-10-31*

Hitzarmenaren indarraldia: 2025-10-31

Aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hura luzatzea (2026ko ekainaren 30eko gehieneko mugarekin, CIDren 228 helburuak adierazten duen bezala) edo hura azkentzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49 h) artikuluan xedatutakoaren arabera.

III.- 2025-01-20. Korreo elektronikoaren bidez, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren mezua jasotzen da adieraziz, 2024-12-11n Gobernu Kontseiluak diruz lagundu daitezkeen jarduerak gauzatzeko epea luzatzea onartu duela, BIC hitzarmenak aldatzeko gehigarriaren bidez.

OINARRI JURIDIKOAK

- Ekainaren 4ko 519/2024 Errege Dekretua, abenduaren 7ko 1074/2021 Errege Dekretua aldatzen duena. Azken honek onuradun gisa ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoa, Xacobeo 2021-2022 Turismo Plan Nazionalaren esparruan.

- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea (49 h) artikulua).

Horren ondorioz, Lurralde batzorde informatiboak Udalbatza Osoari ondorengo erabakia proposamena egiten dio:

Lehenik. Aipatutako Hitzarmenaren 5., 9., 11. eta 19. Klausulak aldatzen dituen eta atxikita doan, hitzarmenaren aldaketa-eranskina onartzea. Hau da:

- 5.4. klausula. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak gauzatzeko epea: 2026-04-30.

- 9. klausula. Azpikontratazioa: Erakunde onuradunek diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100era arte azpikontratatu ahal izango dute jarduera, osorik edo zati batean (orain arte %50a zen).

- 11. klausula. Justifikatzeko epea eta modua: Bi hilabete, gehienez, proiektua gauzatzen amaitzen denetik (2026-04-30).

- 19. klausula. Indarraldia: 2026-04-30

Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hura luzatzea, gehienez ere 2026ko ekainaren 30era arte, CIden 228. helburuak adierazten duen bezala edo azkentzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49 h) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bigarren. Alkate andreari baimena ematea hitzarmenaren aldaketa-eranskina sinatzeko.

Hirugarren Hori burutu ondoren, Eusko Jaurlaritza igortzea Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak sinatu ahal izateko."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda aho batez, onartu da proposamena.

b.- AA SS. ALEGAZIOAK EBAZTEA ETA UDAL PLANEAMENDUKO AA SS-EN ANTOLAMENDU XEHATUAREN ALDAKETA PUNTUALA (3. DOKUMENTUA: HIRIGINTZA ARAUAK" DELAKOAREN 11. ETA 16. ARTIKULUEI DAGOKIENA), BEHIN BETIKO ONESTEA. 2024NNSS0001

Ezagutzera eman da 2025-02-20ko Lurralde Batzordearen proposamena:

"AURREKARIAK

1.- 2024-11-29. Alkatearen Ebazpena aipatutako AA SSen aldaketari hasierako onespina emateari eta 20 laneguneko epean jendaurrean jartzeari buruzkoa.

2.- Ebazpena eta dokumentua informazio publikoan jartzea, Berria, Diario Vasco eta GAOean. Egunkarietan iragarkiak, 2024-12-04an argitaratu ziren eta aldizkari ofizialean, 2024-12-11n.

3.- 2025-01-09. Alegazioak aurkezteko epean (amaiera data: 2025-01-13), Beasaingo EH Bildu udal taldearen ordezkari, Iker Urteaga Rebollar jaunak sinatutako idatzia aurkezten da.

4.- 2025-02-13an. Dokumentua idatzi duen arkitektoaren txostena (erabaki honetan transkribatzen dena), alegazioak osotasunean ez onartzea proposatuz.

5.- 2025-02-17an. Udal idazkariaren txostena jarraitu beharreko prozedurari buruz.

Ondorioz, 2025-02-20ko Lurralde Batzordeak proposatuta, ondorengo

ERABAKI DA

Lehenik. Aurkeztutako alegazioak ebaztea emandako txostenaren arabera eta horren ondorioz, osotasunean ez onartzea.

Bigarren. Udal planeamenduko AA SS-en antolamendu xehatuaren aldaketa puntualari (3. Dokumentua: Hirigintza arauak" delakoaren 11. eta 16. artikuluei dagokiena), behin betiko onespina ematea, hasierako onespina arekiko inolako aldaketarik gabe.

Hirugarren. Hasierako onespina arekiko alegazioak aurkeztu duenari erabaki honen berri ematea, beronen aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsoen aipamena eginez.

Laugarren. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, erabaki hau gehi "3. Dokumentua: Hirigintza arauak" delakoaren 11. eta 16. artikuluen erredakzio osoa argitaratzea, indarrean sartu ahal izateko.

Bosgarren. Udal planeamenduko AA SS-en antolamendu xehatuaren aldaketa puntualaren (3. Dokumentua: Hirigintza arauak" delakoaren 11. eta 16. artikuluei dagokiena), dokumentua behar den moduan diligentziaz Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzea, foru gordailuan artxibatzeko.

Alegazioen erantzuna:

I.- SARRERA. AURREKARIAK.

Honako txostena Beasaingo Udalaren eskariz idazten da, ikuspuntu teknikitik aztertzeko Beasaingo Plangintzako Arau Subsidiarioen antolamendu xehatuaren aldaketa puntualari, "3. Dokumentua: hirigintza arauak" delakoaren 11. eta 16. Artikuluei dagokionari, jendaurrean egon den aldian aurkeztutako alegazio-idatziak.

2024ko azaroaren 29an, Beasaingo alkatearen ebazpenaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaion "Beasaingo Plangintzako Arau Subsidiarioen antolamendu xehatuaren aldaketa puntualari, "3. Dokumentua: hirigintza arauak" delakoaren 11. Eta 16. Artikuluei dagokiona"-ri. Dokumentu horren xedea 2. Aurrekarian adierazitakoa da:

2.- Aldaketaren helburua Ekipamendu Komunitarioko Sistema Orokorretan lehendik dauden erabilei "zuzkidura-bizitokia" erabilera gehitzea da, hain zuzen ere, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 17. artikuluan definitutakoa hau da: Bai aldi baterako bizitoki izan daitezen bai premia berezia duten kolektiboentzako bizitoki sozial bihurtu daitezen.

11. artikuluan, komunitatearen ekipamenduko erabileren kategoriei buruzkoan, b) puntuan, lehendik daudenei "zuzkidura-bizitokien" erabilera gehitzen zaie, eta j) puntuan, zuzkidura-bizitokitzat zer ulertzen den definitzen da.

Sistema Orokorrei buruzko 16. artikuluan, adierazten da Zehaztu Gabeko Ekipamendu Komunitarioko Sistema Orokorrak zertarako erabili ahal izango (S.G.E-8).

ZAZPITURRIETA, 4 arean, "S.G.E.8-zehaztu gabeko", Ekipamendu Komunitarioko Sistema Orokorra kokatzen da eta bertan "Manufacturas Olan" eraikina hartzen duen titulartasun publikoko lurzatia dago.

Halaber, aipatutako dokumentua hogei egun baliodunez jendaurrean jartzea ebatzi zen, GAO-n, Diario Vasco eta Berria egunkarietan iragarkiak jarritz, interesgarritzat jotako alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Jendaurreko erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2024ko abenduaren 11n (238. zk.).

II.- AURKEZTUTAKO ALEGAZIO-IDAZKIEN ZERRENDA

Beasaingo Udalak adostutako jendaurrean jartzeko epea igaro delarik, eta aurkeztutako alegazio-idazkiaren edukia aztertu ondoren, txosten tekniko hau idatzi da, Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen antolamendu xehatuaren aldaketa puntuala, "3. dokumentua: Hirigintza Arauak" dokumentuaren 11. eta 16. artikuluei dagokiena" behin betiko onartzeko erabakia hartzerakoan kontuan har dadin.

Jendaurreko erakustaldi horretan, alegazio-idazki bakarra (1) aurkeztu da.

TITULARRA: Iker Urteaga Rebollar Jauna, Beasaingo EHBilduren ordezkari gisa

SARRERA DATA: 2025/01/09. ERREGISTRO ZK.:2025-147

III.- AURKEZTUTAKO ALEGAZIO IDATZIAREN TXOSTEN TEKNIKOA.

1zk. IDATZIA IKER URTEAGA REBOLLAR Jauna, Beasaingo EHbildu-ren ordezkari gisa

- **Idatziaren edukiaren laburpena:**

Idazkiak adierazten du ez dagoela ados proposatutako Arau Subsidiarioen antolamendu xehatuaren aldaketa puntualarekin, honako alderdi hauetan oinarrituta:

- *Kontzeptuaren gainekoak.*

Uste du aldaketak ez dituela aztertzen udalerrriak zuzkidura-bizitokiei dagokienez dituen behar orokorrak, eta Olan eraikinera bideratutako aurretiazko proiektu bat legitimatzera mugatzen dela.

Era berean, aipatzen du zuzkidura-bizitokiaren erabilera modu interesatuan interpretatzen dela, lana, prestakuntza eta irakaskuntza dela-eta bizitoki hori behar duten pertsonei ostatu emateko, eta eskatzen duten enpresei zerbitzua emateko, zailtasun sozial eta ekonomiko handienak dituzten pertsonei eman beharrean.

Horri dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen zioen azalpeneko VI. atalaren edukia eta "4. artikulua. Interes publikoarekiko mendekotasunaren printzipioa" aipatzen ditu, Beasaingo etxebizitza-premiaren problematikaren erreferentzia gisa.

- *Kokapenari buruzkoak.*

Adierazi du Olan eraikina zuzkidura-bizitoki gisa erabiltzeak okerrera egiten duela Ezkiaga auzoaren egoeran, eta beste gizarte-ekipamendu mota bat eskatzen du.

- *Dokumentuen edukiari buruz.*

Adierazi du ez dela justifikatzen Olan komunitatearen beste ekipamendu batzuetarako beharrezkoa ez denik (2/2006 Legearen 17.2 artikulua) eta, beraz, zuzkidura-bizitokiaren erabilera ez litzateke legezkoa izango.

Aipatu du ez dela kontuan hartu 123/2012 Dekretuaren 16.2 artikulua edukia, non ezartzen baita zuzkidura-bizitokiak etxebizitza bat legez eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat izango direla, eta uste du langile kualifikatuak ez direla halakoak.

Eragin soziolinguistikoaren ebaluazioari buruzko txostenari dagokionez, aldaketa-proposamenaren hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egitea eskatzen du, nahiz eta onartu 179/2019 Dekretuaren 51.1 artikulua arabera ez dagokiola.

- *Onarpenaren uneari buruz.*

Idazkiak Beasaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren zehaztapen batzuk aipatzen ditu. Plan hori hasieran onartu zen, eta Olan eraikina erabilera jakinik gabeko ekipamendu-sistema orokor gisa kalifikatzearen ezaugarriak aipatzen ditu, bai eta zuzkidura-bizitokiaren erabilerari buruzko

hirigintza-araudiaren definizioa ere. Araudi horren arabera, "bereziki behar duten gizarte kolektiboen bizitoki beharrei" bideratuta egongo dira, Arau Subsidiarioen aldaketa puntualaren proposamenaren aurkako argudio gisa.

- Prozeduraren ezintasunari buruz.

Idazkiak 2/2006 Legearen zortzigarren xedapen gehigarria eta Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen 32. artikulua aipatzen ditu, zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurak Beasaingo Udalak aurreikusitako sustapena bideraezin bihurtzen duela justifikatzeko.

Idazkiak, amaitzeko, Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala eteteko eskatzen du.

- **Txosten teknikoa**

Aurrekariak

Indarrean dauden Beasaingo Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak (2007ko behin betiko onespenerako Testu Bategina) ez ziren guztiz egokitu 2/2006 Legearen zehaztapenetara, lege hori indarrean sartu aurretik hasierako onarpena zutelako.

Horregatik, eta 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerria delako (2005eko abenduan erroldatutako biztanleria 12.756 biztanlera iritsi zen), ez zen beharrezkotzat jo zuzkidura-bizitokiaren erabilera komunitate-ekipamenduen zuzkidura-aurreikuspenetan sartzea.

Zuzkidura-bizitokiaren definizioa. Kontzeptua.

2/2006 Legeak adierazten duen bezala, zuzkidura-bizitokiaren erabilera kalifikazio berritzaile bat da. Legeak, etxebizitza babestuetarako erreserbez gain (3.000 biztanletik gorako udalerrietara hedatuta), lurzorua gutxieneko erreserba bat ezartzen du 20.000 biztanletik gorako udalerrietarako, lurzorua eta etxebizitzaren merkaturak arautzeko kudeaketa-tresna gisa.

Zuzkidura-bizitokiaren erabileraren zehaztapenak, azken aldiko hirigintza-legerian, konplexutasun eta aukera maila jakin bat hartu du; Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 23. artikulua testuarekin garapen handiena erakutsiz.

2/2006 Legea, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa

17 artikulua.– Zuzkidurazko bizitokietarako lurzorua kalifikatzea.

1.– Udalaren hirigintza-plangintzaren bidez, erkidegoaren ekipamendu modura ere kalifikatu ahal izango dira berariaz lursail batzuk, erabilera nagusia bizitegiarako duten guneetan, zuzkidurazko bizitokiak egiteko, bai aldi baterako bizitoki izan daitezzen bai premia berezia duten kolektiboentzako bizitoki sozial bihurtu daitezzen; hain zuzen ere, lege honen 81. artikuluan ezarritako gutxieneko estandarrak eta kopuruak betetzeko behar adina lurzoru kalifikatu beharko da, gutxienez. Hori dela eta, antolamendu xehatuak adieraziko du eraikuntza horiek non kokatuko diren eta nolako eraikuntza-ezaugarriak izango dituzten. Erabilera horretarako gehieneko lurzorua 2,5 metro karratu lurzoru izango da plangintzan aurreikusitako bizitoki-erabilerako sabaiko 100 metro karratuko gehikuntzako edo, zehaztapen hori egin ezin denean, etxebizitza berri bakoitzeko.

2.– Hiru-lurzoru finkatuan, erkidegoaren ekipamendurako lehendik dauden partzela batzuk ere erabili ahal izango ditu plangintzak zuzkidurazko bizitokietarako, betiere egiaztatzen baldin bada beste beharrian sozial batzuei erantzuteko nahikoa ekipamendu-partzela daudela erabilgarri.

3.– Era horretara zuzkidurazko bizitokiatarako kalifikatutako lursailek zuzkidura publikoaren izaera edukiko dute, eta ondorioz nahitaez eta doan lagata eskuratuko dira zuzkidura horiek ezartzeko ardura duen administrazioaren alde.

123/2012 DEKRETUA, uztailaren 3koa, hirigintzako estandarrei buruzkoa.

16. artikulua Zuzkidura-bizitokiaren definizioa.

1.- Araudi honen ondorioetarako, zuzkidura-bizitokitza hartuko da bizitzeko egokia den bizitegi-erakuntza, ekipamendu publiko edo zuzkidura publiko gisa eratua, aldi baterako etxebizitza-beharrei nahiz premia handian dauden kolektibo edo pertsonen beharrei erantzuteko, errenta edo kanon baten truke.

2.- Zuzkidura-bizitokiak erkidegoaren ekipamendutarako edo udal-zuzkiduretarako jabetza publikoko lurzoru eta eraikinen gainean edo haien zati batean jar daitezke, eta etxebizitza bat lege eskuratzeko arazoak dituzten pertsonentzat izango dira.

3/2015 LEGEA, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

3. artikulua.– Kontzeptuen definizioa.

Lege honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

a) Zuzkidura-bizitokia: Erakuntza baten zati bateko bizitegi-zuzkidura bat da, pertsonen edo bizikidetza-unitateen bizileku-premiak aldi baterako asetzeko, errenta edo kanon baten truke. Titulartasun publikoko ekipamenduetara zuzendutako eta zerbitzu publikoari atxikitako lurzorian edo eraikin edo lokaletan kokatuta egongo da. Zuzkidura-izaera duenez, ez zaizkio aplikatuko hirigintza-arauditik datozen estandarrak eta legezko erreserbak, eta etxebizitza-erabilerekin pareka daiteke araudi teknikoa aplikatzearen ondorioetarako.

23. artikulua.– Zuzkidura-bizitokiak.

1.– Zuzkidura-bizitokitza joko da bertan bizitzeko egokia den eraikina, ekipamendu edo zuzkidura gisa eratzeko dena eta pertsonen edo bizikidetza-unitateen bizileku-premia aldi baterako konpontzeko erabiltzen dena, errenta edo kanon baten truke. Bertan biziko direnei bizileku batek ohiko premia pertsonalak asetzeko eduki behar dituen lekua eta instalazioak eskainiko dizkie, lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan ezarritako baldintzak betez.

2.– Zuzkidura-bizitokiak ez dira etxebizitza babestu gisa kalifikatuko, eta honako leku hauetako batean kokatu ahal izango dira:

a) Hirigintza-plangintzak zuzkidura-bizitokitarako kalifikatutako lurzoruetan.

b) Hirigintza-plangintzak komunitate-ekipamendutarako edo zuzkidura-bizitoki gisa erabiltzea ahalbidetzen duen beste ekipamenduren baterako kalifikatutako lurzoruetan.

c) Lehendik dauden titulartasun publikoko eraikin edo lokaletan, baldin eta erabilera horretara zuzentzen badira.

3.– Etxebizitza bat legez okupatzeko zailtasunak dauzkaten aldi baterako bizitokia eskaintzeko erabiliko dira, hala nola gazteei, immigrantei, etxebizitza partekatua erabiltzeko eskubidea galdu duten bananduei edo dibortzietuei, hirigintzako eragiketarik direla-eta beste bizitoki baten zain daudenei eta antzeko beste batzuei.

Erabili ahal izango dira, halaber, aldi baterako bizitokia eskaintzeko bai gizarteratzen ari diren kolektiboetako pertsonen, bai babes berezia behar duten, hala nola genero-indarkeria jasan duten emakumei, adinekoei, etxegabeei, desgaitasun fisiko, psikiko edo intelektuala duten eta antzeko egoeran dauden beste batzuei.

4.– Zuzkidura-bizitokiak haien erabiltzaileek aldi batean okupatzeko izango dira. Haien ezaugarriak eta araubide juridikoa lege honetan eta lege hau garatzeko onartzen diren xedapenetan zehaztutakoak izango dira, eta, besteak beste, zehaztu beharko dituzte horrelako bizitokiak okupatzeko baldintzak eta modua, bai eta okupazioaren hasierari eta bukaerari buruzko arauak ere. Edonola ere, ezin izango zaizkie inoiz ere aplikatu ez nahitaezko luzapena, ez hiri-errentamenduei buruzko legeriako gainerako zehaztapenak.

Udal-titulartasuneko zuzkidura-bizitokiak arautzen dituzten udal-ordenantzetan jasota egon beharko dute aurreko artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako zehaztapenak gutxienez, egokitu beharrekoa egokiturik.

5.– Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta udalek hitzarmenak egin ahal izango dituzte, premia duten gizarte-sektoreentzat arian-arian zuzkidura-bizitokiaren udalez gaindiko sare bat eratzeke.

6.– Kontuan hartuta zuzkidurakoak direla, zuzkidura-bizitokiei ez zaizkie aplikatuko hirigintzako legeetan etxebizitzak planifikatzeko eta kudeatzeko jasota dauden eraikigarritasun-mugak, ez eta lursailetan eta etxebizitza babestuetan erreserbatu beharreko gutxienezko estandarrek ere. Edonola ere, dagokion araudi teknikoa aplikatu behar zaienean, etxebizitzaren bizitegi-erabilera dutela joko da.

(aurreko artikuluetan **letra lodiz nabarmendutako testua** txosten honen egileak egin du).

Etxebizitzaren Legean adierazitako zuzkidura-alojamenduen destino-aukeren zabaltasuna ez da murriztailea, eta etxebizitza bat lege okupatzeko zailtasunak dituzten pertsona guztiak antzekotasunez hartzea ahalbidetzen du.

Dagoeneko gainditu dira irakasleei, medikuei eta udalerrietako herritarrei eta enpresei zerbitzua ematen zieten beste profesional batzuei etxebizitza erraztera bideratutako udal-ekimenak, baina oraindik ere badaude ostatua eman nahi dieten ekimenak, udalerrria, lurraldea, kultura... ezagutu nahi duten pertsonen kultura- eta aisialdi-turismorako aterpetxeetan edo udal-ostatuetan ostatua emateko.

Egonaldi luzeetan (ez egunak, ez urteak) etxebizitza bat lortzeko zailtasunak dituzten eta hotel-eskaintzarekin edo etxebizitza tradizionalaren alokairuarekin konpontzen ez diren pertsonentzat bizitokiak izatea enpresen eta ikerketa eta prestakuntza zentroen lankidetzako eremuetan egiaztatutako premia bat da.

Horri dagokionez, ekimen publikoaren bidez, eskualdeko enpresek behar duten eskaria erraztu nahi da, eta lana, ikerketa, prestakuntza eta irakaskuntza dela-eta behar duten pertsonak eta familiak aldi baterako Beasainen bizi daitezen eta egonaldian gure erkidegoko hiri handietan ez bizitzea erabaki dezaten lortu nahi da.

Premia handia duten kolektibo gehienek bizitoki-premiaren arazoa ez da konpontzen erabilera iragankorreko bizitokiekin, etxebizitza duin iraunkor eta egonkorra behar baitute.

Edonola ere, Beasaingo Arau Subsidiarioen aldaketa puntualak ezartzen duen proposamenak ez du eragozten Udalak horien premian daudela uste duen eta sustatzen duen ezein kolektibori ostatu ematea. Lan-, ikerketa-, prestakuntza- eta irakaskuntza-arrazoiengatik behar duten pertsonak bereziki aipatzen dira, aipatutako lege-testuetan berariaz aipatutakoen antzekoak eta komenigarriak direlako.

AA.SS-en antolamendu xehatuaren aldaketa puntualak, dokumentuaren izenburuak adierazten duen bezala, ez du udalerrriaren problematika orokorra aztertu nahi, ez eta izan ditzakeen gabeziak konpondu ere. Egokitasun-arrazoiengatik, zuzkidura-bizitokiaren erabileraren zehaztapena indarrean den hirigintza-araudian txertatu besterik ez du egiten. bere garaian ez zena kontuan hartu; erabilera zehatzik esleituta ez duten gizarte-ekipamenduko sistema orokorrak erabilera horien sustapen publikorako erabili ahal izateko.

Ekimenaren interes orokorra bermatuta dago sartu nahi den erabileraren izaerak berarengatik eta aipatutako hirigintza-legeriak esleitzen dion zuzkidura-erabileraren izaerarengatik.

Aipatutako 2/2006 Legearen «**4. artikulua. Interes publikoaren nagusitasunaren printzipioa.**»-ren 3.a) "atalean honako hau ezartzen du:

"3.— Interes publikoaren aintzat hartuko bada, hirigintzaren antolamenduak honako eskubide hauek bermatu beharko ditu bereziki:

a) Pertsona orok duina eta bere beharretarako egokia den etxebizitza bat eskuratzeko duen eskubidea. Horretarako, herri-administrazioek lurzorua planifikatu, sailkatu, programatu eta izendatu beharko dute babes ofizialeko araubide bati atxikitako etxebizitzak **egiteko eta gizartearen beharrazane** erantzuteko **bizitokiak eraikitze**ko.

Beasaingo ekipamendu komunitarioko erabileretan zuzkidura-bizitokiaren erabilera sartzeko proposamena 2/2006 Legeak etxebizitza-politikaren arloan hartutako neurrien barruan sartzen da. Hain zuzen ere, "II 1" zioen azalpenean honako hau ezartzen da, besteak beste:

"...legeak esparru berri bat xedatzen du: alde batetik, udal guztietara zabaltzen du bizitegi-erabilerarako lurzorua gorde beharra eta zuzkidura-figura berriak ezartzen ditu aldi baterako bizitokirako, eta beste alde batetik, etxebizitza babestuen araubide juridikoa etxebizitza babestuen beste udal-figura batzuetara ere hedatzen du, era horretarako babes publikoko esparru juridiko bat eratuz, orain arte ohikoa eta bakarra izan den babes ofizialeko esparruaren ordeztasuna."

(aurreko artikuluetan **letra lodiz nabarmendutako testua** txosten honen egileak egin du).

Kokapena eta dokumentuen edukia

Arau subsidiarioen antolamendu xehatua puntualki aldatzeko proposamen horri esker, zuzkidura-bizitoki gisa erabil daitezke 2. AREAN ("ZALDIZURRETA") eta 4. AREAN ("ZAZPITURRIETA") aurreikusitako komunitate-ekipamenduko sistema orokorrak (S.G.E.8).

Hala ere, Beasaingo HAPO berriak kendu egin du anbulatorio zaharreko «ZALDIZURRETA» 2. EREMUKO lurzatiaren mugaketa, eta, beraz, hirigintza-koherentziagatik, zuzkidura-bizitokiak sustatzeko ekimen posiblea «Manufacturas Olan» lurzatiaren eremura mugatzen da.

Arau subsidiarioen antolamendu xehatuaren aldaketaren izaera puntualak bermatzen du, halaber, 4. AREAKO ("ZAZPITURRIETA") ESO-8 ren erabilerak, zuzkidura-alojamendurako ez duela beste lurzoru-erreserbarik kenduko beste komunitate-ekipamendu batzuetarako, ez baitu beharrezko erabilera espezifikorik esleitura, eta ez baita erregelamendu bidez hala eskatzen duen garapen berririk aurreikusten.

Indarrean dauden AA.SS-en komunitate-ekipamenduko erabilerek, aurreikusitako kategoria guztietan (irakaskuntza, kirola, herritar-administrazioa, osasuna eta asistentzia, kultura eta aisialdia, erlijioa eta hiletak), beren aurreikuspenei eta handitzeko aukerei eusten diete, eta antolamendu xehatuaren aldaketa puntual honek ez die inolako eraginik izango. Bermatuta dago aurreikusitako gizarte-premiei erantzuteko behar adina ekipamendu-lurzati izatea.

Beasaingo HAPO berriak ezarriko ditu zuzkidura-premia berriak, hirigintza-antolamenduan aurreikusitako biztanleria- eta etxebizitza-garapen berrien arabera.

"Manufacturas Olan" lurzatiaren kokapena eta zuzkidurarako duen erabilera Ezkiaga auzoaren beharrazanetatik harago doaz, eta sistema orokorra da, udalerrri osoari eta are eskualde osoari zerbitzu ematen diona.

Aipatu dugun bezala, aldaketa puntualak ez du lehendik dagoen zerbitzurik kentzen, eta ez du beste erabilera komunitario batzuetarako aurreikusitako baliabiderik kontsumitzen. "Manufacturas Olan" lurzatian esku hartu ahal izateak urte askoan erabilerarik izan ez duen eraikin historiko "abandonatu" bat birgaitzea ekar dezake, eta udalerria eta haren ingurune hurbila biziberrituko dituen jarduera bat udalerriko ondarean sartzea.

Kasu honetan, ez dagokio Hirigintza-estandarrei buruzko 123/2012 Dekretuari buruzko aipamenak egitea, kontuan hartuta Beasaingo udalerria erabilera mota horren erreserbatik salbuetsita dagoela, 20.000 biztanle izatera iristen ez delako.

Beasaingo ekipamendu komunitarioetan zuzkidura-bizitokiaren erabilera txertatzeko borondatea ez dago araututa, ez zenbatekoari dagokionez, ez egiturazko antolamenduari dagokionez. Aukera bat da, Udalak hartu eta sustatu ahal duena, aplikazio zuzeneko maila lotesleko hirigintza-legeriaren arabera zuzkidura-betebehar zehatzen aurrean, hobekuntza gisa.

Planaren hizkuntza-inpaktuaren ebaluaziorik ezari dagokionez, argi dago proposatutako aldaketa puntualak, funtsezkoa ez izateaz gain, ez duela hizkuntza-inpakturik udalerraren dimentsio sozialean. Hori egitea eskatzeak ez du proportzionaltasunik aldaketa-proposamenaren helburuarekin.

Aldaketa puntual horren sustapenak ez ditu urratzen hasieran onetsitako Beasaingo HAPOren egiturazko antolamenduaren zehaztapenak.

Aldaketa behin betiko onartzean erabaki litezkeen antolamendu xehatuaren erabilerak zehazteko, haren baldintzak HAPOren dokumentaziora eraman beharko dira, behin betiko onespeneraren bertsioan.

Prozedura

Nahiz eta Hiri Antolaketako Arauen aldaketa puntualari ez dagokion zuzkidura-bizitokien balizko sustapenaren kudeaketa-baldintza zorrotzak zehaztea, aipatu behar dugu alegazio-idazkian jasotako legezko erreferentziak ez datozela bat aipatzen dituen zuzkidura-alojamenduen erabilerarekin edo ez dituztela adierazten horiek sustatzeko eta esleitzeko prozedurek dituzten aukera guztiak.

2/2006 Legearen zortzigarren xedapen gehigarria babes sozialeko etxebizitzari eta etxebizitza tasatuei buruzkoa da, eta bederatzigarren xedapen gehigarriak arautuko lituzke zuzkidura-bizitokiei buruzko alderdi juridikoak, zeina Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 2. xedapen indargabetzaileak indargabetu.

Horri dagokionean, bederatzigarren xedapenak honako hau adierazten zuen:

1. Legearen 17. eta 81. artikuluetan aurreikusitako zuzkidura-bizitokiak titulartasun publikokoak izango dira, aldi baterako okupatuko dituzte beren erabiltzaileek zuzenbidean onartutako edozein formularen bidez, eta, duten zuzkidura-izaeragatik, ezin izango dira besterendu.

3/2015 Legearen 32. artikulua edukiarik dagokionez, zuzkidura-bizitokiei buruz ari bada ere, ez da guztiz egia horiek alokairu-erregimeneko babes sozialeko etxebizitzaren betekizunen arabera esleitzeko prozedura eskatzea. artikulua 6. apartatuak honako hau dio:

6.– Bizitokiak esleitzeko, alokairuko babes sozialeko etxebizitzentzat zehaztuta dauden printzipio berberak erabiliko dira. **Nolanahi ere, kontuan izanik gizartearen premien zerbitzurako dauden zuzkidurak direla, berariazko prozedurak ezarri ahal izango dira jarduketarako bakoitzerako, haren ezaugarriak eta berezitasunak aintzat hartuta.** Prozedura horiek etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako organoak onartu beharko ditu.

- **Ebazpen proposamena**

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta Beasaingo udal-plangintzako arau subsidiarioen antolamendu xehatuaren aldaketa puntuala, "3. Dokumentua: Hirigintza Arauak" dokumentuaren 11. eta 16. artikuluei buruzkoa, zuzenbidearekin eta udalerriaren interes orokorrekin bat datorrela, aurkeztutako alegazio osoa ezestea proposatzen da."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Estamos en contra de la desestimación de las alegaciones presentadas por EH Bildu. El objeto de la modificación es posibilitar vivienda dotacional, pero el proyecto que presenta el equipo de gobierno dista mucho de recoger viviendas dotacionales. La ley de Vivienda en el artículo 23,3 dice a quienes estarán destinados los alojamientos dotacionales. Para desestimar la alegación quien informa las alegaciones presentadas, se acoge al texto final del artículo que indica "y otros similares". A nosotros no nos parece que el espíritu del legislador sea el que defiende el informe. La ley protege a los colectivos vulnerables. La interpretación esta "cogida con pinzas". No estamos de acuerdo. Además esta modificación sirve de amparo para lo proyectado para el edificio Olaran. Viene en el programa del equipo de gobierno, pero también es histórica la propuesta que desde nuestro partido se ha venido realizando para ese edificio. Creemos que debe tener un uso público, cultural y dirigido a los vecinos de Beasain. Podría ser para ubicar la Musika Eskola o el museo de la historia industrial de Beasain. Pensamos que ese edificio tiene muchas posibilidades. Vosotros mismos habéis visto cuál ha sido la reacción de la ciudadanía en las reuniones en las que se ha dado a conocer el proyecto.

Esta es la postura del partido socialista no sólo hacia la resolución de las alegaciones y la aprobación definitiva de la modificación de las NN SS sino también hacia el proyecto."

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): "Aurreko ostegunean luze hitz egin genuen gai honen inguruan. Eman zitzagun arrazoietan, saiatu zineten garbi uzten alegazioen deuseztatzea lege barruan dagoela interpretazio batean oinarrituta. Lege barruan egon liteke baina nik uste dut sozialista taldeak esan duen bezala eta EH Bilduk garbi utzi zuen bezala, legearen aurkakoa litzateke egiten den interpretazioa. Guri ez zaigu zuzena iruditzen zirrikitu hori erabiltzea. Argi geratu zen oposizioaren jarrera eta baita herritarrena ere. Guk aurka bozkatuko dugu."

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Alegazio-idatzian aurka egotearen gure arrazoiak azaldu ditugu ere, azpimarratu nahi nuke zuzkidura kontzeptuaren filosofia dela sozial zein ekonomikoki behar handiena duten pertsonen zuzendutako bizitokiak direla eta helburua dela denboraldi batean behar horiei erantzutea. Zentzu horretan ez dugu uste talentu-faktorira etorriko diren profesional horiek kolektibo hori osatzen dutenik. Interpretazio bat izan daiteke. Batzordean ere horrela esan zen eta alegazioei ematen zaion erantzunean, une oro, interpretazio hori egiten da. Guretzat, ordea, une oro udal gobernuak zirrikitua bilatzen du Olaran-en egin nahi dena egin ahal izateko. Zuzkidura kontzeptu aldetik hori esango genuke.

Prozedura aldetik ere argi dago beste salbuespen bat bilatu nahi dela esleitzerakoan. Etxebizitza sozialak esleitzeko erabiltzen den prozedura erabili beharko litzateke, baina kasu honetan beste prozedura berezi bat martxan jarri nahi da, etxebizitza-zuzkidurei iruzur egiten diona.

Eduki aldetik horiek izango lirateke potoloenak.

Alegazioaren erantzunean, etxebizitza beharra aipatzen da. Etxebiden 552 eskatzaile daude Beasainen bizi nahiko luketenak eta Arau Subsidiarioetan aurreikusitako 3.000 m2

erabiltzen dira bestelako ekipamendu bat egiteko. Kuriosoa da, bizitoki premia handia duten kolektiboen arazoa ez dela konpontzen denbora bateko erabilerarekin. Arazoa hori da. Ea orain etxebizitza-azterlanarekin irtenbidea ematen diogun. Soluzioak behar ditugu. Herrian kezka bat dago ekipamendu honekiko. Jakitun gara elkargintzarako, Musika Eskola, Emakumeen Etxea eta horrelakoetarako espazioekin arazoak ditugula. Gure ustetan aukera paregabea izango litzateke horietako erabiltzea, baina proposatzen denarekin aukera horiek galdu egiten dira. Proposatzen denarekin ez da ez herriaren ez auzoaren beharrak asetzen.

Azkenik esan bai alegazioan eta baita batzordean ere hizkuntzarekiko aipamena egin genuela eta aldaketa honek izango duen eragina. Esan zitzaigun lege ez gaudela derrigortuta hizkuntzak izan dezakeen eragin-txostena egiteko. Garbi dago talentu-etxe horretara kanpotik etortzen direnak ez dutela euskaraz hitz egiten jakingo. Guretzat garrantzitsua izango litzateke proiektuan jasotzea hizkuntzarekiko zein izan behar den gure planteamendua.

Osoko Bilkura ondoren jakinaraziko zaigu, zein den prozedura alegazio horrekin jarraitu ahal izateko.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Lurralde batzordea edukiz betetako batzordea izan zen. Teknikariak argi eta garbi jarri zuen mahai gainean Legearen barruan dagoen proposamena dela. 2006ko Legetik haratago 2015ekoak zabaldu egiten du eta filosofia ez da murriztailea izatea baizik eta zailtasunak dituzten pertsona guztiak antzekotasunez hartzea ahalbidetzen du. Esaten da “*antzeko beste batzuei*”, egoera guztiak zerrendatzea zaila delako. Beti zabaltzailea da, lehenengo legetik zabaldu eta beste kolektiboetara aldi baterako bizitokia izateko aukera ematea. Horrekin adierazi nahi duguna da ekarri dugun proposamenak, aldeko txosten teknikoan oinarritutakoa, ez dela inolaz ere salbuespena baizik eta bizitoki erabilera hori emateko oinarri juridikoa.

Nerea esan duzu Etxebiden 552 eskatzaile daudela. Pasatutako etxebizitza-azterketa irakurri duzu?. Azterketa horretan 360 etxebizitza azaltzen dira. Dena dela honi buruz egin behar den monografikoan izango duzu aukera azaltzeko. Zuek aipatutako eskera kopururik ez dago eta ezta 912 etxebizitza hutsik ere. Dena da interpretagarria.

Hizkuntzaren eragina. Etekin handia jasotzen duten enpresa handietara kanpotik etorriko diren langile kualifikatuak izateari buruz, esan baldintza horiek emakida egiterakoan zehaztu beharko dela. Aipatu zen bezala lehentasuna izango dute kanpora joan diren goierritarak, hau da, inguruko langile kualifikatua izan daiteke, hau da, goierritarra dena, euskaraz hitz egiten duena eta zailtasunak medio talentu egoitza horretan bizi daitekeena aldi baterako.

Gaur hemen ebazten duguna da AA SS-en aldaketa xehatua. Luze eztabaidatu ostean proposamena, bozkatzera pasatuko gara.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 7 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Abstentzioak: 0

Etorri gabea: 1 (Beasaingo EH Bildu).

Horren ondorioz, proposamena gehiengo osoarekin onartu da.

c.- UDALAZ GAINDIKO ADMINISTRAZIOEK ESKU HARTZEN DUTEN OBRAK EGITEKO UDAL-EKARPENAK:

- ANTZIZAR KIROLDEGIAN HONDAR-BEROA APROBETXATZEKO OBREN 2. ETA 3. ZIURTAGIRI PARTZIALAK. 2024HIBO0055

Udal teknikariak emandako txostenaren arabera eta 2025-02-20ko Lurraldeko proposamenaren arabera, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

- Lehenengo eta bigarren ziurtagiriak osorik onartzea, eta horren ondorioz ordaintzeke dauden 50.000 €ko (BEZ barne), kopurua onartzea eta ordaintzea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak helarazitako 111.822,61 €koa den hirugarren obra-ziurtagiritik, 55.911,31 €ko (BEZa barne), kopurua onartzea eta ordaintzea.
- ORIA IBAIAREN ARROAN UHOLDEAK PREBENITZEKO OBREN LIKIDAZIOA (ONARPEN PARTZIALA). 2019IDBO0025

2025-02-20ko Lurraldeko proposamenaren arabera, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Oria ibaiaren arroan uholdeak prebenitzeko obren likidaziotik (588.909,42 €, BEZ barne), ordaintzeko geratzen den 188.909,42 €ko kopurua onartzea eta ordaintzea.

4.- BERRI EMATEA:

Ezagutzero eman dira ondorengo ebazpenak:

- 2025eko urtarrilaren 27tik otsailaren 23ra emandako Ebazpenak.
- 2025eko urtarrilaren 27tik otsailaren 23ra emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Angel Redondo Fernandez jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), ordutegia ez betetzeagatik izandako salaketari buruz eta irekitako hiru disziplina ebazpenei buruzkok informazioa eskatu du. Alkate andreak (EAJ-PNV) erantzun dio esanez tarteka, orduz kanpo ixten dituzten tabernei salaketak jartzen zaizkiela Datuak babesteari buruzko printzipioan oinarrituta, ez da informazio gehiagorik eman.

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galdera atalean honako hauek egin dira:

BANDALISMOA.

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), hainbat ibilgailu kalean aparkatuta zeudenean izandako kristal-hausturei buruz informazioa gehiago dagoen galdetu du.

Alkate andreak (EAJ-PNV) erantzun du esanez bart 30 ibilgailu kaltetuak suertatu direla Joan XXIII eta Mariarats kaleen artean eta ezbeharra Ertzain etxera bideratu dela. Balorazioa egin ostean, neurriren bat hartzen bada, esan du, jakinaraziko dela, baina udaletxean ez dela inolako kexarik aurkeztu.

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), adierazi du herritarrek kezkatuta daudela gertatutakoaren aurrean eta pentsatzen dute ezbehar horiek sortu dituztenek zigorgabetasunez jokatu dutela, bigilantzia eskasa dagoelako. Herritarrek eskatzen dutena da, bigilantzia areagotzea.

Alkate andreak (EAJ-PNV) adierazi du kexa horien berri emango dela baina baloraziorik egin gabe ezin duela esan zertan geratuko diren.

BERDINTASUNERA EDO KONTZILIAZIORA ZUZENDUTA DAUDEN DIRULAGUNTZA OINARRIAK

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), esan du orain dela gutxi Goiekiko Administrazio Kontseilura bertaratu zela Ordiziako rugby kirol-taldea adieraziz emakumeekin egiten duten lana eta noski, dirulaguntza eskatzen zioten ez bakarrik Goiekiri, bertan ordezkatzuta gauden herriei ere bai. Jakin nahi duena da hemen zerbait eskatu duten.

Alkate andreak (EAJ-PNV) esan du azken boladan ez direla hona bertaratu. Badirudi klub hori bideragarria izateko ari direla laguntza eskatzen.

1.ERANSKINA

MERKATARITZA SEKTOREA BIZIBERRITZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK.

ZIOEN AZALPENA

Oinarri hauen helburua merkataritza sektorea biziberritzea da, hutsik dauden lokalak martxan jartzeko laguntzak emanez eta eskualdatzen denean negozioen jarraipena bultzatuz.

Laguntza horien bidez, establezimendu bat erosteko, alokatzeko edo eskualdatzeko orduan jarduerak irekitzeak dakartzan gastuak gutxitzen lagundu nahi da eta horrela udalerriko establezimenduak irekita mantentzea bultzatuz.

1.XEDEA

Oinarri hauen xedea merkataritza jardueraren bat lokal huts batean abian jarri edo martxan dagoen negozioa eskualdatu nahi duen pertsonak bete behar dituen baldintzak eta betekizunak zehaztea da, oinarri hauetan arautzen diren merkataritzako lokal bat erosi/alokatu edo eskualdatzeko dirulaguntzak lortzeko.

Laguntza hauek arautzen dituen esparru juridikoa, funtsean, honako hauetan dago jasota:

- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 17,34) artikulua udalerraren berezko eskumentzat hartzen du barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea.

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.

- Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14).

- Beasaingo Udalaren 2023-2025ko dirulaguntzen plan estrategikoa (6. Garapen ekonomiko eta soziala sustatzea eta tokiko turismoa sustatzea. 6.2. lerroa: Udalerriko merkataritza sektorea bultzatzea.

Udalak urtero onartzen ditu dirulaguntza horiek merkataritza biziberritzeko eta irekitako establezimenduak mantentzearen. 2024an 31 dirulaguntza eman ziren (horietako batzuk aurreko ekitaldi ekonomikoetako eskaerei dagozkienak). Aurreikusitako kreditua nahikoa ez

zen izan eta kreditu aldaketa eskatu zen. Beraz, egiaztatu da oinarri horiekin bat egin dela helburuaren lorpenarekin

2. FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako helburu diren dirulaguntzak finantzatzeko Udalak 30.000 euroko kreditua aurreikusia du, honetarako sortutako kontu-sail honetan: 1.0243.481.431.50.01

Gehieneko zenbateko osoaz gain, aurkeztutako eskabideak ikusita, zenbateko gehigarri bat onartu ahal izango da, dagokion aurrekontu-aldaketa onartu ondoren, dirulaguntza emateko ebazpena eman baino lehen.

3. ESKATZAILEAK ETA DIRULAGUNTZA MOTAK

Beasainen merkataritza-jardueraren bat abiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridiko guztiei zuzendurik dago deialdia.

Hauek ezingo dira dirulaguntza hauen onuradunak izan:

- Lege honetako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan (2003ko azaroaren 18ko BOE) jasotako egoeran dauden pertsona edo erakundeak.
- Beasaingo Udalarekin hartutako zorrak premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrak edo erakundeak, ezta Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean ez dituztenak ere, harik eta zor horiek benetan ordaindu eta kitatu edo bete arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda dagoenean.
- Zigor edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuak izan direnak, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenak, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzako Legearen Testu Bategina onartzen duena barne.
- Foru Ogasunekin eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharretan eguneratuta ez daudenek.

Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.

- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

- Beasaingo Udala Euskadi NISAE-ko administrazioen Elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (NISAE) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

- a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko direnak.

Dirulaguntzaren eskatzaileak egiaztapen horren aurka azaltzen bada, edo Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezin bada informazioa adierazitako moduan lortu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, gehienez hamar eguneko epea dago huts horiek zuzentzeko edo nahitaezko dokumentazioa ekartzeko, udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horrela egin ezean, eskaria atzera botako da.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, dirulaguntzarako eskabidean atzera egin dela ulertuko da, eta beste izapidetik gabe artxibatuko da eskaera.

Udalak dirulaguntzak emango ditu itxita dauden lokalak edo jarduera garatzen den lokal edo establezimenduak erosteko eta alokatzeko.

Bi dirulaguntza daude:

1.Lokala alokatzea:

- Negozio batekin jarraitzeko
- Hutsik dagoen lokal batean merkataritzako jarduera bat gauzatzeko

2.Lokala erostea:

- Negozio batekin jarraitzeko
- Hutsik dagoen lokal batean merkataritzako jarduera bat gauzatzeko

1.- LOKALA ALOKATZEKO DIRULAGUNTZAK

Baldintzak:

- a) Lokalen kokapena garatu nahi dene jarduera.

Negozioak Beasaingo udalerrian kokatuta egon behar du. Sektore edo jardun hauetakoren batekin lotura duten jarduerak ezarri ahal izango dira: txikizkako merkataritza eta zerbitzu jarduerak.

- b) Betebeharreko baldintzak.

Ekintzaileek, unero oro, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoetan eguneratuta egon behar dute.

- c) Dirulaguntzaren zenbatekoa eta iraupena

Jarduera garatuko duenak establezimendua alokatuz gero, gehienez eskaera egindako lehen hiru urteetako alokairu-gastuak diruz ordainduko zaizkio, betiere aurrekontu egokia eta nahikoa egonez gero.

- Eskaeraren lehenengo urtean alokairu gastuaren %50, gehienez ere 300€ hilean.
- Bigarren eta hirugarren urtean alokairu gastuaren %40, gehienez ere 200€ hilean. Horretarako, ekitaldi ekonomiko bakoitzeko abenduaren 15a baino lehen, urte horri dagozkion fakturak aurkeztu beharko ditu.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria, alokairu gastuei bakarrik dagokiena izango da (BEZa eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikipenak kanpo utzita) eta ez dira lokalaren erabilerari lotuak egon daitezkeen bestelako gastuak kontuan hartuko (komunitate gastuak, ura eta argindarraren gastuak etab.)

Deialdi bakoitzean emandako dirulaguntza gehienez ere 12 hilabeteko alokairu-gastuei dagokiena izango da, eta eskaera bakoitza egiten den urte naturalari soilik dagokiona; nolanahi ere, eskaera eta/edo kontratua egiten den egunetik aurrera zenbatuko da.

Hurrengo bi urtetan dirulaguntza jaso ahal izateko, urtero aurkeztu behar dira eskaera eta dokumentuak, eta urterokoen zenbatekoa, berriz, aurreko paragrafoan zehaztutakoa

2.- LOKALA EROSTEKO DIRULAGUNTZAK

Lokala erosteko dirulaguntzak jasotzeko baldintzak, lokala alokatzeko jarritako baldintzen berdinak dira:

a) Zenbatekoa

Dirulaguntza higiezinaren katastro-balioaren %4, gehienez ere, 2.000€.

4. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA ETA ORDAINKETA

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak azterzeaz eta ebaluatzeaz. Dirulaguntza emateko, jarduerak udal lizentzia eta baimen egokiak dituela egiaztatuko da. Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio behin dokumentuak aurkeztu ondoren.

Ordainketa hilabeteko epean egingo da, Alkateak dirulaguntzaren aldeko ebazpena ematen duenetik kontatzen hasita, beti ere onuraduna zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren eguneratuta egonda. Ordainketa egin urretik, Udalak zuzenean kontsultatuko du, pertsona edo erakunde interesdunak horren aurka egiten ez badu behintzat, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez eta hori 39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

5. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin.

Kasu horretan, Udalari jakinarazi beharko zaio.

6. ESKAERAK AURKEZTEA.

Epea:

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskabideak aurkeztu ahal izango dira eta horiek aurkezteko epea 2025-11-30ean amaituko da.

Modua:

Dirulaguntza eskatzen duten ekintzaileek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, jarraian adierazten diren agiri guztiekin batera, Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez edo aurrez aurre iGunean l. eranskineko ereduaren arabera.

-Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskaera inprimakia behar bezala beteta.
- Pertsona fisikoak: NA.
- Pertsona juridikoak: IFK, legezko ordezkariaren NA eta ordezkatzeko ahalmena duela ziurtatzen duen agiria.
- Dirulaguntzen onuradun izateko debeku egoeretan ez egotearen erantzukizun adierazpena.
- Alokairuaren kontratua, salerosketa eskritura publikoa edo Registroko Informazio-Ohar Soila.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko zergaren altaren kopia.
- Garatu nahi den jardueraren aitortpena.
- Alokairuaren kasuetan dirulaguntza-eskaera egin den urteari dagozkion alokairuaren fakturak eta ordainagiriak.

7. DIRULAGUNTZAREN BALDINTZAK ALDATZEA EDO EZ BETETZEA

- Baldintzak aldatzen badira (lehenengo alokairu-kontratua eta gero erosketa), dirulaguntzaren berrikuspena egingo da.

- Emakidarako emandakoak betetzen ez badira, horiek itzultzeko prozedura hasiko da.

8. DATUEN BABESA

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

9. APLIKATUKO DEN ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena aplikatuko da.

10. EBAZPENAK ETA HELEGITEAK

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Oinarri hauen aurka, Administrazioaren aurkako helegitea jar daiteke Gipuzkoako Administrazioaren aurkako Auzi gaien Epaitegiaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunetik hasita zenbatutako bi hilabeteko epearen barruan. Hala nahi izanez gero, bide Administrazioaren aurkako auzi-bideari ekin aurretik, birjarpen-helegitea jarri ahal izango da ebazpena eman zuen organoaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunean hasita zenbatutako hilabeteko epean.

[Itzuli dagokion puntura](#)

2.ERANSKINA

BEASAINGO UDALERRIAN MERKATARITZA ARLOAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEEI DIRULAGUNTZA EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK.

ZIOEN AZALPENA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17.1 artikuluan, udalerrriaren eskumen propio gisa aurreikusten du: Barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea.

Horretan oinarrituta, Udalaren helburua da tokiko merkataritza sustatu eta indartzea.

Horrekin lortu nahi dena da:

- Bezeroak fidelizatzea eta bezero berriak erakartzea.
- Herritarrek udalerriko establezimenduetan erosteak duen garrantziaz jabetzeko sentiberatze lana egin.
- Herria dinamizatzea eta bide batez, ekonomia sustatzea.

Hori guztia sustatu ahal izateko, dirulaguntzak emateko oinarri hauek prestatu dira araudi hauen babesean:

- Diru-laguntzei buruzkoa 38/2003 lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/Errege deketuaren bidez onartua.
- Dirulaguntza arautzen dituen Udal Ordenantza (2018/06/14GAO).
- Beasaingo udaleko 2023-2025 urteetarako Dirulaguntzen Plan estrategikoan, zehazki 6. Helburu estrategikoan: Garapen ekonomiko eta soziala sustatzea eta tokiko turismoa sustatzea eta 6.2. lerroan: Udalerriko merkataritza sektorea bultzatzea.
- 2024an, udalerrian dagoen elkarte bakarra izan zen laguntzen eskatzaile eta onuradun bakarra. Elkarte horrek egiten duen lan garrantzitsua kontuan hartuta, komenigarritzat jotzen da dirulaguntza horiek argitaratzen jarraitzea.

1. XEDEA

Oinarri hauen xedea hau da:

Beasaingo udalerrian merkataritza arloan lan egiten duten elkarteei (merkataritza sustatzeko jarduerak gauzatzeko), dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

2. FINANTZIAZIOA

Deialdi honetarako helburu diren dirulaguntzak finantzatzeko Udalak 14.000 €-ko kreditua aurreikusia du aurrekontuko kontu-sail honetan: 0243.481.430.10.01 “Dirulaguntzak: Merkataritza”.

3.ERAKUNDE ONURADUNAK

Dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte, aldez aurretik eskatuta, herrian helbideratutako eta Eusko Jaurlaritzako Elkartearen erregistroan edo Euskal Autonomia Erkidegoko Enpresa eta Sindikatu Elkartearen Erregistroan inskribatutako merkatarien elkarteek.

Erakunde horiek egunean izan beharko dituzte Gizarte segurantzarekiko eta Udal eta Foru Ogasunarekiko betebeharrak.

Hauek ezin izango dira dirulaguntza hauen onuradunak izan:

- Lege honetako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan (2003ko azaroaren 18ko BOE) jasotako egoeran dauden pertsona edo erakundeak.
- Beasaingo Udalarekin hartutako zorrak premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrak edo erakundeak, ezta Udalarekiko zerga- betebeharrak egunean ez dituztenak ere, harik eta zor horiek benetan ordaindu eta kitatu edo bete arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda dagoenean.
- Zigor edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuak izan direnak, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-bereizkeriagatik gertatutakoak barne.
- Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharretan eguneratuta ez daudenek.

Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.

- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. Artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.
- Beasaingo Udala Euskadi NISAE-ko administrazioen Elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (NISAE) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

- a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko direnak.

Dirulaguntzaren eskatzaileak egiaztapen horren aurka azaltzen bada, edo Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezin bada informazioa adierazitako moduan lortu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, gehienez hamar eguneko epea dago huts horiek zuzentzeko edo nahitaezko dokumentazioa ekartzeko, udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horrela egin ezean, eskaria atzera botako da.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, dirulaguntzarako eskabidean atzera egin dela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da eskaera.

4. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Udalerriko merkataritza indartzeko ekintzak, hala nola:

- Ostalaritza sustatzea.
- Merkatarien tokiko asoziazionismoa bultzatzea.
- Tokiko kontsumoa bultzatzeko ekintzak (sentiberatze kanpainak, iragarki publizitarioak...)
- Herria dinamizatzeko ekintzak.
- Merkataritzarekin zerikusia duten formazio-saioak.
- Eraldaketa digitala sustatzeko

ekintzak.

- Bezeroberriak erakartzeko eta lehengoak fidelizatzeko ekintzak.
- Elkartearen komunikazioa, publizitatea eta irudia lantzeko ekintzak.

5. DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO BALDINTZAK

Dirulaguntzak jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak:

- a) Hizkuntza irizpideak. Diruz lagundutako bere jardunean argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerako agiriak euskaraz behintzat idatzi eta ezagutza eman beharko dira. Ahozko adierazpenetan euskarari emango zaio lehentasuna.
- b) Generoa eta berdintasuna. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen Testu Bategina onartzen duena, hartuko da kontuan.
- c) Publizitatea. Beasaingo Udalaren aipamena egingo da kolaboratzaile gisa.
- d) Dirulaguntza ematea arrazoitu duten helburua betetzea, egitasmoa/ekintza burutzea eta gauzatu dela egiaztatzea Udalaren aurrean.

Edozein arrazoiengatik ekintzaren bat gauzatzen ez bada, Merkataria Elkartea itzuli beharko du ekintza horretarako emandako dirulaguntza (hurrengo oinarrian aipatutako irizpideak).

- e) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideak lortu izana jakinaraztea Beasaingo Udalari.

6. HAUTAKETARAKO IRIZPIDEAK ETA PUNTUAZIOA

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak norgehiagoka-erregimenean emango dira, hau da: aurkeztutako eskabideak alderatuko dira, lehentasun-hurrenkera bat ezartzeko adierazitako balorazio-irizpideen arabera. Horrela, kasuan kasu finkatutako irizpideak jarraituz, diruz lagundutako jardueren kalitatea eta bideragarritasuna bermatuko duen laguntza kopurua hautatuko da soilik.

Laguntza horietarako gehieneko zenbatekoa (14.000€) aurkeztutako eskaeren proportzioan banatuko da.

Proiektuak behar bezala baloratzeko ondorengo hautaketa irizpideak egiaztatzen duten agiri guztiak aurkeztu beharko dira.

Gehienera ere 100 puntu emango dira. Gutxienez 30 puntu lortzen dituzten proiektuek soilik jaso ahal izango dute dirulaguntza.

Banaketa-eta puntuazio-irizpideak: Dirulaguntza emateko garaian, ondoko irizpideak baloratuko dira:

A) Proposatutako programaren ezaugarriak: 60 puntura arte, honako alderdien arabera:

a.1) Merkataritza sustatzeko programaren informazio-xehetasun maila. Lortu nahi diren helburuak, parte-hartzaileak erakartzeko modua, ekintzen iraupena, lortu nahi den eragina (helburuak, adierazleak...)... 20 puntu.

a.2) Programan, burutzea aurreikusten diren ekintzak anitzak eta ezberdinak izatea. Horiek modu honetan baloratuko dira: 15 puntu.

- 2 jarduera desberdinei dagozkienak badira: 5 puntu
- 4 jarduera desberdinei dagozkienak badira: 10 puntu.
- 5 jarduera edo gehiagori dagozkienak badira: 15.

a.3) Proposatutako ekintzak beste laguntza- eskatzaile batzuenak ez bezalakoak izatea. 5 puntu

a.4) Programa osatzen duten ekintzetan inplikaturako establezimendu kopurua: 20 puntu.

- 10 establezimendu baino gutxiago: 0
- 11tik 35 establezimendura: 5 puntu
- 36 establezimendu baino gehiago badira: 20 puntu

B) Erakunde eskatzailearen gutxienez 5 urteko ibilbidea. 15 puntu. Txikiagoa balitz, puntuazioa 0 puntukoa izango litzateke.

C) Gaitasun ekonomiko autonomoa eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotzen dituzten laguntzak. 25 puntura arte

c.1) Laguntza Udalari bakarrik eskatzen bazaio: 5 puntu.

c.2) Bakarrik Beasaingo Udalari dirulaguntza eskatu zaion eta erakunde eskatzaile berak kofinantzatutako proiektua: 10 puntu.

c.3) Beasaingo Udalari dirulaguntza eskatu zaion proiektua eta beste erakunde publiko edo/eta pribatuekin batera kofinantzatutako proiektua: 25 puntu.

Dirulaguntzaren zenbatekoa lortutako puntuazioaren proportzionala izango da.

7. ESKAERAK. AGIRIAK.

Eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

- Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatua.
 - Dirulaguntza eskatzen den proiektu, jarduera edo programa espezifikoaren gastu eta diru-sarreraren aurrekontua. (I eranskina)
 - Erakunde eskatzailearen IFK.
 - Erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, dirulaguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.
 - Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.
 - Eskatzailea, dirulaguntzaren onuradun izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13.artikuluak adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitortpena (II. Eranskina).
 - Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22 artikuluan eskatzen den egiaztapena, dagokion Ogasunarekiko zerga- betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen inguruan, Udalak egiaztatuko du datuen bitartekaritzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuetan kontsulta eginez.
- Hala ere, onuradun eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri; kasu horretan, izaera hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu bere kabuz.
- Laguntzea eskatzen den ekintzei edo programari buruzko txosten zehatza. Beasaingo Udalak 2025eko urtarrilaren 30ean onartutako hizkuntza irizpideetan jasotakoa jarraituz proiektua behintzat euskaraz aurkeztu behar da.

8. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskabideak aurkezteko epea zenbatzen hasiko da eta 2025eko maiatzaren 30a arte izango da.

Eskaerak, telematikoki aurkeztu beharko dira Beasaingo Udalaren www.beasain.eus helbidean.

Udalak ikusiko balu, eskaera osatu gabe dagoela, 10 egun balioduneko epea emango dio eskatzaileari dokumentuak zuzentzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu gabe baleude, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

9. PROPOSAMENAK EGIN ETA EBAZTEA

Eskatutako agiriak aztertu ondoren Kultura, Euskara eta Merkataritza azpisailaren teknikariak txostena emango du jasotako eskaerez eta proposamena egingo dio Alkateari ebatz dezan.

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi behar zaio.

10. ERAKUNDE ESKATZAILEARI JAKINARAZTEKO EPEA

Alkateak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio dirulaguntzaren eskatzaileri, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere 2 hilabeteko epean.

11. ORDAINTZEKO MODUA

Dirulaguntzaren % 100 dirulaguntza emateko ebazpena eman eta hurrengo bi hilabeteetan ordainduko da.

12. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek helburu berdinerako emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi beharko zaio.

13. DIRULAGUNTZA EGIAZTATZEA

Dirulaguntza zuritzeko garaian kontuan hartu beharreko kopurua aurkeztutako proiektu osoarena izango da.

Erakunde onuradunek ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

a) Burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea euskaraz. (III Eranskina).

1. Egindako jarduerak eta egutegia.
 2. Dirulaguntzaren xede den programa gauzatu dela egiaztatzen duen dokumentazioa (argazkiak, kartelak, programak...).
 3. Ahal den ekintzetan beasaindar pertsonen parte hartze kopurua (emakumezkoak, gizonezkoak), ekintza bakoitzeko.
 - b) Justifikazio-kontu sinplifikatua: jardueran izandako gastu eta inbertsioen zerrenda xehatua hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egite data eta, hala badagokio, ordainketa data adieraziz. Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsiaren arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira (III. Eranskina).
- Fakturak aurkeztu beharko dira eta kantitate txikiko gastuetan faktura osoak aurkezteko zailtasunak daudenean, faktura sinplifikatuak (aurreko tiketa) onartu daitezke hauekin batera elkarlearen aitortpena aurkeztuz jarduerarekin lotutako gastuak direla eta beti ere fakturatzeko betebeharra arautzen duen Erregelamendua, azaroaren 30eko 1619/2012 errege Dekretuak jarraituz. (IV. Eranskina).
- c) Lortutako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak ez dituztela gainditzen adierazten duen erantzukizuneko aitortpena.
 - d) Helburu bererako beste laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria edo, hala badagokio, jasotako laguntzen aipamen berezia. (IV. Eranskina).

14. EGIAZTATZEKO EPEA

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, dirulaguntzaren deialdiko urtearen hurrengo urteko urtarilaren 31rako aurkeztu beharko dira.

15. BETEBEHARRAK EZ BETETZEA

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta hala behar izanez gero, emandako dirulaguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.

16. DATUEN BABESA

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

17. APLIKATUKO DEN ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena aplikatuko da.

18. NORMATIVA DE APLICACIÓN

Para todo aquello que no esté previsto en esta convocatoria, será de aplicación la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

19. EBAZPENA ETA HELEGITEAK

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Oinarri hauen aurka, Administrazioaren aurkako helegitea jar daiteke Gipuzkoako Administrazioaren aurkako Auzi gaien Epaitegiaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunetik hasita zenbatutako bi hilabeteko epearen barruan. Hala nahi izanez gero, bide Administrazioaren aurkako auzi-bideari ekin aurretik, birjarpen-helegitea jarri ahal izango da ebazpena eman zuen organoaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunean hasita zenbatutako hilabeteko epean.

[Itzuli dagokion puntura](#)

3.ERANSKINA

BEASAINGO UDALERRIKO SALTOKIETAKO ETA JARDUERETARAKO ERROTULUETAN, IRUDI KORPORATIBOETAN ETA WEB ORRIETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO OINARRIAK

1. XEDEA

Deialdi honen xedea jarduera publizitzeko asmoz errotuluetan, irudi korporatiboan eta web orrietan (aurretiko ordainketarik gabe) euskara erabiltzen duten Beasaingo merkatariei eta jardueriei 2025 urterako dirulaguntzak emateko prozedura arautzea da, euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin.

Laguntza hauek 2023-2025 urteetarako onartutako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan daude aurreikusita, zehazki 6. helburu estrategikoan: Garapen ekonomiko eta soziala sustatzea eta tokiko turismoa sustatzea eta 6.2. lerroan: Udalerriko Merkataritza sektorea bultzatzea eta 3. helburu estrategikoan Euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatzea eta normalizatzea. 3.2. lerroan: Euskararen erabilera normalizatzea. Merkataritzan euskararen erabilera sustatzea.

Udalak urtero onartzen ditu dirulaguntza horiek merkataritzan hizkuntza paisajea euskalduntzeko. 2024an 16 dirulaguntza eman ziren. Aurreikusitako kreditua nahikoa ez zen izan eta kreditu aldaketa eskatu zen. Beraz, egiaztatu da oinarri horiekin bat egin dela helburuaren lorpenarekin.

Laguntza hauen bidez, jarduerak irekitzeak dakartzan gastuak gutxitzen lagundu nahi da, Beasaingo Merkataritza eta turismoa biziberritzeko eta aldi berean, hizkuntza paisaia, establezimenduen eta, ondorioz, udalerrarena euskalduntzeko.

2. FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako helburu diren dirulaguntzak finantzatzeko Udalak 3.000 euroko kreditua aurreikusita du, horretarako sortutako aurrekontu honetan: 243.471.335.30.01

Gehieneko zenbateko osoaz gain (3.000,00 €), aurkeztutako eskabideak ikusita, zenbateko gehigarri bat onartu ahal izango da, dagokion aurrekontu-aldaketa onartu ondoren, dirulaguntza emateko ebazpena eman baino lehen.

3. ESKATZAILEAK

Dirulaguntza jaso ahal izango dute, aldez aurretik eskatuta, bere jarduera ekonomikoa Beasaingo udalerrian dauden lokaletan egiten dutenak.

Dirulaguntza hauek ezin izango dituzte jaso:

- a. Helburua euskara normalizatzea duten entitateak, hau da, helburu sozial hori duten elkarteak, euskaltegiak.
- b. Ikastetxe kontzertatuak, entitate publikoak, alderdi politikoak eta sindikatuek.
- c. Industria-jarduera dutenak.

4. DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO BALDINTZAK

a) Dirulaguntza guztiak jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak:

- Jarduera Beasaingo udalerriko lokaletan burutzea.
- Testua euskaraz zuzen idatzita egongo da. Horretarako komenigarria da aldez aurretik Hizkuntza Politika sailean kontsulta egitea.
- Udal Ogasunarekin zorrik ez da izango.
- Egunean izango dira Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak

b) Errotuluen eta irudi korporatiboaren (besteak beste, eskuorriak, zigiluak, bisita txartelak, poltsak) kasuetan:

- Testua euskaraz bakarrik egotea.
- Ez da onartuko pertsonaren izen eta deiturak bakarrik edukitzea.

c) Web-guneen kasuan:

- Beasainen helbide fiskala izatea.
- Web-gunea euskaraz bakarrik edota euskaraz eta beste hizkuntza batean/batzuetan edukitzea. Hainbat hizkuntzatan dagoenean euskarazko testuaren portzentajea gainerako hizkuntzen antzekoa izango da.

5. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Laguntza horiek emateko aurreikusitako hasierako kreditua handitzeko aukera kontuan hartuta, 4. Artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei emango zaizkie, eta 8. Artikuluan adierazitako zenbatekoari.

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz. Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dirulaguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio.

Ordainketa Alkateak dirulaguntzaren Ebazpena idazten duenetik hilabeteko epean egingo da.

6. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi beharko zaio.

7. ESKAERAK AURKEZTEA

Oinarriak argitaratzea eta eskaerak aurkezteko epea:

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskabideak aurkeztu ahal izango dira eta horiek aurkezteko epea 2025-12-01ean amaituko.

Modua:

Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, jarraian adierazten diren agiri guztiekin batera. Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoen bidez ahal izanez gero: [http:// www.beasain.eus/es/bulego-](http://www.beasain.eus/es/bulego-) birtuala edo Udalaren erregistroan, I. eranskineko ereduaren arabera.

Aurkeztu beharreko agiriak: Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu behar ditu eskatzaileak:

Kasu guztietan: 2025eko jarduera ekonomikoari dagokion gastuen jatorrizko faktura.

Errotuluen, web-guneen eta irudi korporatiboen kasuan:

- Errotuluak: Errotuluaren izena jasotzen duen agiria edo argazkia.
- Irudi korporatiboa: Laginen bidez egiaztatuko da.
- Web-orriak: Web-gunearen helbidea.

Dirulaguntzaren eskaera behar bezala beteta egon ezean, daturen bat falta bada edo eskatutako agiriren bat falta bada, eskatzaileari (bai pertsonari edo entitateari) 10 egun baliodunetan zuzentzeko eskatuko zaio, eta hori egin ezean, bere eskaera izapide gehiagorik gabe artxibatuko dela adieraziko zaio.

Onuraduna jarduera horretarako beste laguntzaren bat jasotzeko zain edo jasota egonez gero, laguntza horren deskribapen zehatza egin beharko du, eta dirulaguntzen baturak inoiz ezingo du burututako gastuaren %100 baino gehiago izan.

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Udalak zuzenean kontsultatuko du, pertsona edo erakunde interesdunak horren aurka egiten ez badu behintzat, NISAE elkareragingarritasun-nodoaren bidez, foru-ogasunetan eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzan, saria jasotzen duena foru-ogasunean eta Gizarte Segurantzaren aurrean dituen betebeharren ordainketan egunean dagoela.

8. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

1. Errotuluak: Kostuaren %50 izango da diru- laguntza, eta gehienez ere 240 €.
2. Irudi korporatiboa: Kostuaren %50 izango da dirulaguntza eta gehienez ere 180 €.
3. Web-orriak:

- a) Web-orria euskara hutsez eginez gero, kostuaren %60 izango da diru- laguntza, eta gehienez ere 470 euro.
- b) Web-gunea euskaraz eta beste hizkuntza batean/batzuetan egonez gero, kostuaren %50 izango da dirulaguntza, eta gehienez ere 370 euro.

9. DIRULAGUNTZEN BALDINTZAK EZ BETETZEA

Kasu honetan, ez da bidezkoa diru- laguntza lortzeko baldintzak egiaztatu behar izatea.

10. DATUEN BABESA

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

11. APLIKATUKO DEN ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena aplikatuko da.

12. EBAZPENA ETA HELEGITEAK

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Oinarri hauen aurka administrazio errekurtsua aurkez daiteke Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, oinarri hauek GAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean. Aldez aurretik, aukerako berraztertze-errekurtsua jarri ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, ebazpen hori GAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

[Itzuli dagokion puntura](#)

[4.ERANSKINA](#)

BERTAKO PRODUKTUAK MERKATURATZEKO ETA KONTSUMOA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

ZIOEN AZALPENA

Beasaingo Udalaren eskumenen artean “barne merkataritza antolatzea eta kudeatzea dago. Zehatza esanda merkatu, hornidura-merkatu, azoka lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea...” dago.

Udalaren helburua da hileroko lehenengo larunbatean izaten den azoka sustatzea eta horrela bertako ekoizleei nahiz kontsumitzaileei, bertako produktuak zirkuitu laburren bitartez merkaturatzeko eta kontsumitzeko aukera ematea.

Laguntza hauek arautzen dituen esparru juridikoa funtsean, honako hauetan dago jasota:

- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 17ko 2/2016 Legeak (7. Artikulua) euskararen erabilerari buruzko eskumenak ematen dizkie toki-erakundeei eta udalerriei eta 17,34) artikulua, berriz, udalerriaren berezko eskumentzat hartzen du barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea.

Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea.

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.

- Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14).

- Beasaingo Udalaren 2023-2025eko dirulaguntzen plan estrategikoa (6. Garapen ekonomiko eta soziala sustatzea eta tokiko turismoa sustatzea, 6.2. lerroan: Udalerriko Merkataritza sektorea bultzatzea. Hurbileko produktuen merkataritza eta salmenta sustatzea.

Udalak urtero ateratzen ditu dirulaguntza horiek larunbateko azoka sustatzeko. 2024an 5 dirulaguntza eman ziren. Aurreikusitako kreditua nahikoa izan zen eta ez zen kreditua handitu beharrik izan. Beraz, egiaztatu da oinarri horiekin bat egin dela helburuaren lorpenarekin.

1. XEDEA

Udalaren helburua da hilabete hasierako larunbateko udal merkatua tokiko produktuekin sustatzeko laguntzak arautzea.

Laguntza hauen bidez, hilean behin izaten den azokara etortzen diren ekoizleei lagundu nahi da, horiek hileroko gutxieneko diru kopurua jakin bat izanez eta bertako ekoizleen eta lana balioan jarriz eta bertako eta garaiko produktuen kontsumoa areagotuz.

2. FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako helburu duen dirulaguntza finantzatzeko Udalak 7.000 euroko kreditua aurreikusia du 2025eko aurrekontuan 0243.471.431.20.01 aurrekontu-sailean.

Gehieneko zenbateko osoaz gain, aurkeztutako eskabideak ikusita, zenbateko gehigarri bat onartu ahal izango da, dagokion aurrekontu-aldaketa onartu ondoren, dirulaguntza emateko ebazpena eman baino lehen.

3. ESKATZAILEAK

Hilero lehen larunbatean izaten den azokara bertako produktuak saltzera etortzen diren ekoizleak eta artisauak.

Horrelako egoeraren batean daudenek ezin izango dituzte laguntza hauek jaso:

- Lege honetako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan (2003ko azaroaren 18ko BOE) jasotako egoeran dauden pertsona edo erakundeak.
- Beasaingo Udalarekin hartutako zorrak premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrak edo erakundeak, ezta Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean ez dituztenak ere, harik eta zor horiek benetan ordaindu eta kitatu edo bete arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda dagoenean.
- Zigor edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuak izan direnak, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenak, martxoaren 16ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera sexu-bereizketatik gertatutakoak barne.
- Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharretan eguneratuta ez daudenek.

Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.

- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.
- Beasaingo Udala Euskadi NISAE-ko administrazioen Elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (NISAE) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

- a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko direnak.
Dirulaguntzaren eskatzaileak egiaztapen horren aurka azaltzen bada, edo Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezin bada

informazioa adierazitako moduan lortu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, gehienez hamar eguneko epea dago huts horiek zuzentzeko edo nahitaezko dokumentazioa ekartzeko, Udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horrela egin ezean, eskaria atzera botako da.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, dirulaguntzarako eskabidean atzera egin dela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da eskaera.

4. DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO BALDINTZAK

Postu bakoitzeko onuradun bakarra izan ahalko da. Horretarako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Azokan bertako produktuen salmenta (hilabete hasierako lehen larunbatean), beti ere honako baldintzak betetzen dituen:

- a) Fruta eta barazki salmentetan, garaian garaiko produktuak eskainiko dira. Gutxienez: 3 produktu.
- b) Bestelako produktuetan ez da kopuru minimorik ezarriko, hau da: gazta, eztia, ogia...
- c) Sei hilekoan, gutxienez 3 larunbatetan saldu behar dute. Horren jarraipena Udaleko teknikari batek egingo du.

Udal Ogasunarekiko, Foru Aldundiko Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharretan egunean egotea.

5. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Onuradun bakoitzak azokan parte hartutako larunbat bakoitzaren truke 60€ jasoko ditu.

6. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Merkataritzako teknikariak, hiler azokara etorritako ekoizleen zerrenda izango du, eta ekoizleek sinatu beharko dute. Hori azokan saldu izanaren frogagiria izango da.

Laguntzak, 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenei emango zaizkie eta 5. artikuluan adierazitako zenbatekoa izango da.

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Merkataritzako teknikaria arduratuko da aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz. Alkatearen ebazpenaren bidez.

Ordainketa Alkateak dirulaguntzaren ebazpena ematen duenetik hilabeteko epean egingo da.

7. ESKAERAK AURKEZTEA

- Epea:

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera

eskabideak aurkeztu ahal izango dira eta horiek aurkezteko epea 2025-11-30ean amaituko da.

- Modua:

Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, jarraian adierazten diren agiri guztiekin batera, Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez, ahal izanez gero, edo aurrez aurre iGunera joanda.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskaera orria behar bezala beteta eta sinatuta.
NA atxikiko da.

8. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi beharko zaio.

9. DIRULAGUNTZAREN BALDINTZAK ALDATZEA EDO EZ BETETZEA

Dirulaguntza emateko baldintzak betetzen ez badira, itzultzeko prozedura hasiko da.

10. DATUEN BABESA

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

11. APLIKATUKO DEN ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena aplikatuko da.

12. EBAZPENA ETA HELEGITEAK

Oinarri hauek administrazio-izaera daukate, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Oinarri hauen aurka administrazio errekurtsua aurkez daiteke Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, oinarri hauek GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean. Aldez aurretik, aukerako berraztertze-errekurtsua jarri ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, ebazpen hori GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

[Itzuli dagokion puntura](#)

5.ERANSKINA

BEASAINGO UDALERRIAN EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA
BERDINTASUNA SUSTATZEN DUTEN ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZEN OINARRI
ARAUTZAILEAK. 2025. URTEKO DEIALDIA

ZIOEN AZALPENA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,27 artikuluan, udalerriaren eskumen propio gisa aurreikusten du: Genero-berdintasunerako eta ekitatea sustatzeko politikak antolatzea eta kudeatzea.

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina probatzen duena adierazten du toki-administrazioaren eskumena dela:

f) Toki-eremuan sentsibilizazio-jarduerak egitea, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko behar diren neurriez.

k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakunde horien xedeek edo funtzioek tokian-tokian emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

Horretan oinarrituta, Udalaren helburua da gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea eta emakume eta gizonezkoen arteko elkartasun eta berdintasun baloreak sustatzea, bai eta Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa sustatzea ere. Zehazki, helburu hauek dituzten jarduerak:

- Elkarre-bizitza bultzatzea.
- Emakume eta gizonen arteko parekidetasuna sustatzea.
- Beasaingo emakumeen parte hartzea sustatzea udalerriko bizitza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturaren esparru guztietan.

Horretarako, diru-laguntzak emateko oinarri hauek prestatu dira aurrerago zehazten direnak, honako hauek kontuan hartuta:

- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (2018/06/14 GAO).
- Beasaingo udaleko dirulaguntzen Plan estrategikoa 2023-2025 (1. helburu estrategikoa: gizarte-ekintza sustatzea. 1.3. Diru-laguntza lan-ildoak: gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea).

Udalak urtero eskaintzen ditu laguntza horiek, udalerriko emakumeen elkarteak, elkarte feministak eta LGTBI elkarten jardura autonomia babesteko, bai eta elkarte horien eta beste elkarte batzuen jardura ere (kirola, kultura...), herritarrak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan sentsibilizatzeko. 2024ean aurkeztutako hiru proiektuen memoriak aztertu ondoren, helburua lortzen lagundu dutela eta aurreikusitako kreditua nahikoa dela egiaztatu da.

I.- XEDEA

1.1. Oinarri hauen xedea da Beasaingo Udalak emango dituen laguntzak arautzea, bai Emakumeen elkarteak, elkarte feministak eta LGTBI elkarteek ohiko funtzionamendu-gastuetarako, bai emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko programa espezifikoak eta/edo zerbitzuak garatzeko.

1.2. Programa eta jarduera horiek ez dute irabazteko asmorik izango; Beasaingo udalerrian garatuko dira edo, udalerritik kanpo garatzen badira, haien onuradunak Beasainen erroldatutako pertsonak izan behar dute; eta diru-laguntza deialdiari dagokion ekitaldian garatuko dira.

II. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN PROIEKTUAK/JARDUERAK

Jarraian zehaztuko diren jarduera eta programek, berdintasuna sustatzea helburu dutenek, jaso ahal izango dituzte diru-laguntzak, Beasaingo Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana eta EAEko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana kontuan izanda.

Diru-laguntzen 2 ildo ezarri dira:

- a) 1. Ildoa: Beasaingo Emakumeen elkarteak, elkarte feministak eta LGTBI elkarteek ohiko funtzionamendu-gastuak, hala nola instalazioak eta ekipoak mantentzea, bazkideak prestatzeko eta ahalduzko jarduerak. Kontzeptu horretarako 8.000,00 € bideratu dira guztira.
- b) 2. Ildoa: Beasaingo herritarrei zuzendutako proiektuak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko. Kontzeptu horretarako, guztira, 8.000,00 € erabili dira.

Diru-laguntza lerro bakoitzeko eska daitezkeen gehieneko zenbatekoa 6.000,00 € da.

Beasaingo Emakumeen elkarteak, elkarte feministak eta LGTBI elkarteek dirulaguntzaren lehen lerroan aurkeztutako proiektuetara bideratutako zenbatekoa agortzen ez bada, eman gabeko zenbatekoa dirulaguntzaren bigarren lerroko proiektuen artean banatu ahal izango da, betiere proiektu bakoitzeko gehienez 6.000 €-ko zenbatekoa gainditzen ez bada.

Deialditik kanpo daude:

a.- Aisialdiko jarduerak baino ez diren proiektuak.

b.- Genero-ikuspegirik gabeko proiektuak.

III. ERAKUNDE ONURADUNAK

Irabazi-asmorik gabeko udal-elkarteak izan daitezke oinarri hauetan araututako diru-laguntzen onuradun, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Legez eratuta egon behar dute eta dagokion Elkartearen Erregistroan izena emanda egotea. Deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko eguna baino, gutxienez, urtebete lehenago egon behar dute inskribatuta dagokion Erregistro Publikoan.
- b) Elkarteek Beasainen izan beharko dute egoitza soziala, ordezkaritza edo administrazio-egitura iraunkorra.

Hauek ezingo dira dirulaguntza hauen onuradunak izan:

- Lege honetako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan (2003ko azaroaren 18ko BOE) jasotako egoeran dauden pertsona edo erakundeak.
- Beasaingo Udalarekin hartutako zorrak premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrak edo erakundeak, ezta Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean ez dituztenak ere, harik eta zor horiek benetan ordaindu eta kitatu edo bete arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda dagoenean.
- Zigor edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuak izan direnak, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-bereizkeriaragatik gertatutakoak barne.
- Foru Ogasunekin eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharretan eguneratuta ez daudenek.

Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.

- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.
- Beasaingo Udala Euskadi NISAE-ko administrazioen Elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (NISAE) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

- a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko direnak.

Dirulaguntzaren eskatzaileak egiaztapen horren aurka azaltzen bada, edo Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezin bada informazioa adierazitako moduan lortu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, gehienez hamar eguneko epea dago huts horiek zuzentzeko edo nahitaezko dokumentazioa ekartzeko, udalak egindako

errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horrela egin ezean, eskaria atzera botako da.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, dirulaguntzarako eskabidean atzera egin dela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da eskaera.

IV. ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Entitate onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Beasainen jardueraren bat edo programaren bat egitea, deialdiaren urtean.
- b) Udalaren aurrean, jarduera egin dela eta kasu bakoitzean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzea.
- c) Beasaingo Udalak egingo dituen ikuskapenen menpe jartzea, eta egin behar dituen ikuskatze jarduerak ez eragozte.
- d) Jarduera bererako lortu den beste edozein dirulaguntzaren berri ematea (iturria publikoa zein pribatua izan).
- e) Diruz lagundutako jarduera guztietan egiten den publizitatean, baita ohiko funtzionamendu-gastuei buruzkoetan ere, Udalaren lankidetzara adierazi beharko da, udal-armarria sartuta.
- f) Euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko udal Ordenantza betetzen dela zaintzea

V. FINANTZAZIOA

Oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzen zenbatekoa 16.000,00 €koa da, eta honako aurrekontu-partida honen kargura finantzatuko da: 2025. 0241.481.231.50.03 "Berdintasuna sustatzeko dirulag."

VI. ESKABIDEAK AUKEZTEA

Epea:

Udalbatzak onetsitakoan, DNBra bidaliko dira, eta GAOOn argitaratu ondoren, eskaerak aurkezteko epea hasiko da. Epea hilabetekoa izango da, oinarriak GAOOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Modua:

Eskabidea oinarri hauetako 1. eranskinean jasotako ereduaren arabera aurkeztu beharko da, eta hurrengo puntuan adierazten diren agiriekin batera aurkeztuko da. Eskabideak honela aurkeztuko dira:

- Nagusiki, Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez:
<http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala>
- Aurrez aurre, Igunean.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskabidearekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- a) Erakundearen IFK.
- b) Eskareri dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatua, behar bezala beteta.
- c) Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.
- d) Laguntzea eskatzen den ekintza edo programari buruzko txosten zehatza.
- e) Diru-laguntza eskatzen den proiektu, jarduera edo programa espezifikoaren gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua

VII. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Kultura, euskara eta merkataritza azpiarloari dagokio oinarri hauetan alde aurreko laguntzak kudeatzea. Teknikariek arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz ondorengo oinarrian adierazitako balorazio-irizpideak kontuan hartuta: Laguntzak emateko edo ukatzeko, Alkatetzaren ebazpena emango da, eta ebazpen hori diru-laguntza eskatzen duen erakundeari jakinaraziko zaio, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta hiru hilabeteko epean gehienez, alde aurretik, Udal Ogasunarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatuko da.

VIII. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Proiektuak behar bezala baloratzeko ondorengo hautaketa irizpideak egiaztatzen duten agiri guztiak aurkeztu beharko dira.

Gehieneko puntuazioa 100 puntukoa da. 50 puntu edo gehiago lortu dituzten proiektuak bakarrik lagunduko dira diruz.

Banaketa- eta puntuazio-irizpideak:

a) Dirulaguntza 1. lerroa: Beasaingo emakume-elkarteak, elkarte feministak eta LGTBI funtzionamendu gastuak eta emakumearen ahalduntzea:

- Bazkide kopurua: 35 puntu arte
- Emakumeen presentzia elkartearen zuzendaritza postuetan: 5 puntu arte
- Elkartearen antzinatasuna: 10 puntu arte
- Jardueraren iraupena: 10 puntu arte
- Udalak antolatutako programa eta jardueretan laguntzea eta/edo parte hartzea: 5 puntu arte
- Beste erakunde eta eragile batzuek antolatutako programetan eta jardueretan laguntzea edo parte hartzea: 5 puntu arte
- Genero ikuspegia: 10 puntu arte
- Programa / jarduera euskaraz garatzea: 5 puntu arte
- Programaren koherentzia teknikoa, laguntzen xedearen arabera: 15 puntu arte

b) Dirulaguntza 2. lerroa: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko proiektu interesgarriak

- Beasaingo emakume bazkide kopurua, 35 puntu arte
- Emakumeen presentzia elkartearen zuzendaritza postuetan 5 puntu arte
- Jardueraren iraupena 10 puntu arte

- Genero ikuspegia 25 puntu arte
- Programa / jarduera euskaraz garatzea 10 puntu arte
- Herritarren parte hartzea eta beste entitate eta eragile batzuekin lankidetzan 5 puntu arte
- Programaren koherentzia teknikoa, laguntzen xedearen arabera 10 puntu arte

Oro har, emango den diru-laguntzaren zenbatekoa diruz lagundutako jardueraren edo programaren kostuaren % 60koa izango da. Diru-laguntzaren zenbatekoaren eta aurreikusitako gainerako diru-sarreraren baturak ez du inolaz ere ekarriko diru-sarrerak aurreikusitako gastuak baino handiagoak izatea.

Hala ere, jarduera edo programaren kostuaren 100eko 80ko dirulaguntza jaso ahal izango dute 70 puntuko edo gehiagoko balorazioa lortzen dutenek, oinarri hauetan ezarritako muga barruan. Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezingo da izan garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

Diru-laguntza honen xede diren jarduerak garatzeko udal zentroetan espazioak erreserbatzea ordaintzetik salbuetsita egongo da.

Eman beharreko diru-laguntzen zenbateko osoa aurrekontuetan diru-laguntzak estaltzeko erabilgarri dagoen diru kopurua baino handiagoa bada, diru-laguntza guztiak murriztu egingo dira portzentaje berean, harik eta diru-laguntza guztien zenbatekoa aurrekontuetan erabilgarri dagoen diru-kopuruarekin estali arte.

IX. DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Diru-laguntzaren zenbatekoak honela ordainduko dira:

- % 70a, diru-laguntzak esleitzeko ebazpena eman eta hilabeteko epean, aurrerakin gisa.
- % 30a, egindako gastuaren justifikazioari dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

X. JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUAK.

Justifikatzeko epea ez da 2026ko urtarrilaren 30etik gorakoa izango.

Justifikazioa egiteko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Egindako gastuen zerrrenda eta horien egiaztatagiriak: fakturak.
- Egindako proiektuaren edo jardueraren memoria:
 - Egindako jarduerak eta egutegia.
 - Diru-laguntzaren xede den programa gauzatu dela egiaztatzen duen dokumentazioa (argazkiak, kartelak, programazioak ...).
 - Parte-hartzaileen kopurua (sexuaren arabera bereizita).
 - Gauzatze-mailaren ebaluazioa.
- Diru-sarreraren eta gastuen balantze ekonomikoa

Diruz lagundutako jarduera edo proiektu bakoitzaren diru-sarrerak jatorrizko agirien bidez edo udaleko langileekin konpultsatutako agirien bidez edo elkarte edo erakundeko ziurtagirien bidez justifikatu beharko dira.

Udalari aurkezten zaizkion justifikazioetan egiaztatzen bada diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren azken kostua diru-laguntza kalkulatzeko onartutako aurrekontua baino txikiagoa dela, diru-laguntzaren zenbatekoa txikitu egingo da, proiektua edo jarduera egitearen proportzioan.

XI. ESKABIDEEN BATERAGARRITASUNA

Diru-laguntzen oinarri hauetan ezarritako laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde eta organismo batzuek emandako beste edozein laguntzarekin. Kasu horretan, horren berri eman beharko dio Udalari.

XII. DIRU-LAGUNTZAREN BALDINTZAK EZ BETETZEA

Oinarrian aipatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, diru-laguntza itzultzeko prozedura hasiko da.

XIII. ERREKURTSOAK

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hura interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Oinarri hauen aurka, administrazio-errekurtoa aurkez daiteke Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, oinarri horiek GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, ebazpena GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

[Itzuli dagokion puntura](#)

6.ERANSKINA

KULTURA, KIROLA EDO GENERO BERDINTASUNERA EDO KONTZILIAZIO ERANTZUKIDERA ZUZENDUTA DAUDEN EKINTZA EDO JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZEN 2025. URTEKO DEIALDIA

ZIOEN AZALPENA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,1 artikuluan, udalerriaren eskumen propio gisa aurreikusten du:

- 19) Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.
- 20) Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.

- 27) Genero-berdintasunerako eta ekitatea sustatzeko politikak antolatzea eta kudeatzea.
- 35) Immigrazio alorrean gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerriartasunaren inguruko legeriarekin bat etorrita eta erakunde autonomikoekin lankidetzan.
- 36) Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

Horretan oinarrituta, Udalaren helburua Herritarrek tokiko politika publikoak formulatu, egikaritu eta ebaluatzeke prozesuetan parte hartzea da. Zehazki, helburu hauek dituzten jarduerak:

- Elkarte-bizitza bultzatzea.
- Beasaingo emakume eta gizonen parte hartzea sustatzea udalerriko bizitza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturaren esparru guztietan.

Horretarako, diru-laguntzak emateko oinarri hauek prestatu dira aurrerago zehazten direnak, honako hauek kontuan hartuta:

- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina
- Diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (2018/06/14 GAO).
- Beasaingo udaleko dirulaguntzen Plan estrategikoa 2023-2025 (1. helburu estrategikoa: gizarte-ekintza sustatzea. 1.9. Diru-laguntza ildoak: Kultura, kirola eta genero berdintasunera zuzenduta dauden ekintza eta jardueretarako).

Laguntza hauen bidez udalerrian aurretik egiten ez ziren eta profil desberdinetako pertsonak parte hartzera bultzatzen dituzten jarduerak egiten laguntzeko da. 2024ean aurkeztutako eta diruzlagundutako 4 proiektuen memoriak aztertu ondoren, helburua lortzen lagundu dutela eta aurreikusitako kreditua nahikoa dela egiaztatu da.

I. XEDEA

1.1. Oinarri hauen xedea da Beasaingo elkarte, klub eta herritarren parte-hartzea sustatzea, beasaindarrentzat interesgarriak izan daitezkeen kirol, kultura edo genero-berdintasuna eta kontziliazio erantzukidea sustatzen duten jarduerak eta ekitaldien garapenarekin zerikusia duten jarduerak eta ekitaldietan.

1.2. Programa eta jarduerak horiek ez dute irabazteko asmorik izango; Beasaingo udalerrian garatuko dira edo, udalerritik kanpo garatzen badira, haien onuradunak Beasainen erroldatutako pertsonak izan behar dute; eta diru-laguntza deialdiari dagokion ekitaldian garatuko dira.

II. ONURADUNAK

Beasaingo elkarte, klub eta herritarrak izan daitezke oinarri hauetan araututako diru-laguntzen onuradun, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Elkarte eta klubak kasuan, egoitza soziala, ordezkaritza edo egitura administratibo iraunkorra Beasainen izan beharko dute, eta legez eratuta eta dagokion Erregistroan inskribatuta egon beharko dute.
- b) Herritarren kasuan, dirulaguntza eskatzen den momentuan Beasainen erroldatuta egon beharko da.

Hauek ezingo dira dirulaguntza hauen onuradunak izan:

- Lege honetako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan (2003ko azaroaren 18ko BOE) jasotako egoeran dauden pertsona edo erakundeak.
- Beasaingo Udalarekin hartutako zorrak premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrak edo erakundeak, ezta Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean ez dituztenak ere, harik eta zor horiek benetan ordaindu eta kitatu edo bete arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda dagoenean.
- Zigor edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuak izan direnak, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenak, 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginaren arabera sexu-bereizkeriagatik gertatutakoak barne.
- Foru Ogasunekin eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharretan eguneratuta ez daudenek.

Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.

- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.
- Beasaingo Udala Euskadi NISAE-ko administrazioen Elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (NISAE) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

- a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko direnak.

Dirulaguntzaren eskatzaileak egiaztapen horren aurka azaltzen bada, edo Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezin bada informazioa adierazitako moduan lortu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, gehienez hamar eguneko epea dago huts horiek zuzentzeko edo nahitaezko dokumentazioa ekartzeko, udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horrela egin ezean, eskaria atzera botako da.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, dirulaguntzarako eskabidean atzera egin dela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da eskaera.

III. ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Entitate onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Beasainen jardueraren bat edo programaren bat egitea, deialdiaren urtean.
- b) Udalaren aurrean, jarduera egin dela eta kasu bakoitzean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzea.
- c) Beasaingo Udalak egingo dituen ikuskapenen menpe jartzea, eta egin behar dituen ikuskatze jarduerak ez eragozte.
- d) Jarduera bererako lortu den beste edozein dirulaguntzaren berri ematea (iturria publikoa zein pribatua izan).
- e) Diruz lagundutako jarduera guztietan egiten den publizitatean, baita ohiko funtzionamendu-gastuei buruzkoetan ere, Udalaren lankidetzari adierazi beharko da, udal-armarria sartuta.
- f) Euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko udal Ordenantza betetzen dela zaintzea

IV. FINANTZAZIOA

Oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzen zenbatekoa 10.000,00 €koa da, eta honako aurrekontu-partida honen kargura finantzatuko da: 2025. 0260.481.337.20.01. kultura, kirola, berdintz. ekintz. dirulaguntzak

V. ESKABIDEAK AUKEZTEA

Epea:

Udalbatzak onetsitakoan, DNBra bidaliko dira, eta GAOari argitaratu ondoren, eskaerak aurkezteko epea hasiko da. Dirulaguntza eskatzeko epea azaroak 28an amaituko da.

Modua:

Eskabidea oinarri hauetako eskaera orrian jasotako ereduaren arabera aurkeztu beharko da, eta hurrengo puntuari adierazten diren agiriarekin batera aurkeztuko da. Eskabideak honela aurkeztuko dira:

- Nagusiki, Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez:
<http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala>
- Posta zerbitzuaren bidez.
- Aurrez aurre, Igunean.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskabidearekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- Kultura, kirola edo genero berdintasunera eta kontziliazio erantzunkideari zuzenduta dauden jarduerak eta ekitaldiak diruz laguntzeko eskabidearen eredu normalizatua, oinarri hauekin batera aurkeztu dena. Bertan, besteak beste, honako informazioa jasotzen da:
- Diru sarrera eta gastuen aurrekontu xehea, aurreikusitako finantza baliabideak adieraziz (kuotak, doantzak, bestelako organismoen diru laguntzak...).
- Garatu nahi den programaren azalpena. Bertan honako helburuak jorratuko dira: parte hartzaileak, datak, egingo diren tokiak, metodologia...Elkartearen Estatutuak eta Zuzendaritza Batzarra osaketaren fotokopia, aldaketarik izan badute edo inoiz aurkeztuak izan ez badira.

VI. DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Oinarri horiek antolatzea eta bideratzea Herriarren Arloari dagokio. Kultura, Kirola, Berdintasuna, Gazteria, Merkataritza eta Hizkuntza Politikako teknikariek aztertu eta ebaluatuko dituzte aurkeztutako eskabideak, hurrengo oinarrian adierazitako balorazio-irizpideak kontuan hartuta. Alkatetzaren ebazpenaren bidez emango edo ukatuko dira laguntzak. Ebazpen hori dirulaguntza eskatu duen erakundeari edo pertsonari jakinaraziko zaio, dirulaguntza eskatu eta hilabeteko epean.

VII. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Eskabideak behar bezala baloratzeko, hautaketa-irizpide hauek betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira:.

Banaketa- eta puntuazio-irizpideak:

A) Jarduera baloratzeko irizpideak: Kontuan izango dira:

- a) Jardueraren interesa: parte-hartzaile kopurua; aurreikusitako eragina; berrikuntza; eremu geografikoa; programaren iraupena; xede duen gizarte-arloa; beste erakunde batzuekiko lankidetzatza... 20 puntu arte)
- b) Programaren kalitatea: programaren egitura eta garapena; barne- eta kanpo-komunikazioa; teknologia berrien erabilera . (20 puntu arte)
- c) Jardueraren aurrekontua: banaketa xehatua, finantza-ahalegina (beste finantzabide batzuk bilatzea); gastuak eta diru-sarrerak justifikatzeko modua. (20 puntu arte)
- d) Zeharkako gaien tratamendua: euskararen presentzia; ehuneko esanguratsu batean 13 eta 35 urte arteko gazteei zuzendutako programak; programak talde gazteen parte hartzea barne hartzea; programan genero ikuspegia sartzea; lengoia eta irudiaren erabilera ez sexista. (25 puntu arte)

B) Pertsona edo erakunde eskatzailearen esperientzia eta antolatzeko modua:

- a) Udal programetan laguntzea (Jai Batzordea, Berdintasun Kontseilua...). (10 puntu arte)
- b) Egitura partizipatiboa eta ekitatiboa. (5 puntu arte)

Gehieneko puntuazioa 100 puntukoa izango da. 50 puntu edo gehiago lortu dituzten proiektuak baino ez dira diruz lagunduko.

Puntuen banaketa oinarri hauetako 2. eranskinean jasotako moduan ezarriko da.

Hala ere, jardueraren edo programaren kostuaren % 100eko dirulaguntza jaso ahal izango dute 70 puntuko edo gehiagoko balorazioa lortzen badute, oinarri hauetan ezarritako muga barruan. 51-70 puntu lortzen badira, proiektuak % 80ko dirulaguntza jasoko du. Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera hartuta, ezingo da izan garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

VIII. DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Ebazpena emateko gehieneko epea hilabetekoa izango da, dirulaguntzaren eskabidea aurkezten denetik hasita, Udal Ogasunarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatu ondoren.

Kontzesioa jakinarazi eta hilabeteko epean, emandako kopuruaren %90 aurrez ordainduko da. Ordainketa horiek justifikazioa baino lehen emandako fondoak izango dira, diruz lagundutako jarduerak burutzeko behar den finantza bidea edukitzeko asmoz.

Programa honen kontura emandako dirulaguntzaren %10-a justifikatzeko dokumentazioa aurkezten denean ordainduko da.

Gehienez, 3.000€ko laguntza jasoko du proiektu bakoitzak.

IX. JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUAK

Jasotako diru laguntzaren justifikazioa aurkezteko epemuga ez da inoiz izango 2026ko urtarrilaren 30 baino geroago.

Kultura, kirola edo genero berdintasunera eta kontziliazio erantzunkidera zuzenduta dauden jarduerak eta ekitaldiak diruz laguntzeko zuriaketaren eredu normalizatuarekin batera aurkeztu behar diren agiriak honako hauek dira:

- Proiektua izandako garapenaren laburpen txostena eta helburuen ebaluazioa.
- Diruz lagundutako jardueraren Sarrera eta Gastuen Balantzea, beste instituzioetatik jasotako diru-laguntzak barne, oinarrietako eredu normalizatuaren arabera.
- Gastu guztien ordainagiriak edota fakturak.
- Editatu diren aldizkariak, kartelak eta gainerako publizitatea, Udalaren babesletza agertu beharko dute.

Diruz lagundutako jarduera edo proiektu bakoitzaren diru-sarrerak jatorrizko agirien bidez edo udaleko langileekin konpultsatutako agirien bidez edo elkarte edo erakundeko ziurtagirien bidez justifikatu beharko dira.

Udalari aurkezten zaizkion justifikazioetan egiaztatzen bada diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren azken kostua diru-laguntza kalkulatzeko onartutako aurrekontua baino txikiagoa dela, diru-laguntzaren zenbatekoa txikitu egingo da, proiektua edo jarduera egitearen proportzioan.

X. ESKABIDEEN BATERAGARRITASUNA

Diru-laguntzen oinarri hauetan ezarritako laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde eta organismo batzuek emandako beste edozein laguntzarekin. Kasu horretan, horren berri eman beharko dio Udalari.

XI. DIRU-LAGUNTZAREN BALDINTZAK EZ BETETZEA

IX. oinarrian aipatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, geratzen den %10-a ez da ordainduko eta diru-laguntza itzultzeko prozedura hasiko da.

XII. ERREKURTSOAK

Honako oinarri hauen aurka berraztertzeko errekurtsua aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen.

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hura interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Oinarri hauen aurka, administrazio-errekurtsua aurkez daiteke Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, oinarri horiek GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aldez aurretik, aukerako berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, ebazpena GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

[Itzuli dagokion puntura](#)

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera zazpiak bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.